


AIARALDEA *hemen*



GUK ESKULTURA:
21 urte bete ditu Angel Caminok diseinatutako ikur amurriarrak 18-19 or.

MODESTO MANUEL AZKONA:
Frankistek fusilatutako Arabako Diputatu saratxoarraren gorpuzkiak topatu dituzte 12-15 or.



LAUDIO 9
Amaitu da Glavistako kontsulta epea
Guardian eta Parter Capitalek uko egin diote akordioa sinatzeari

KULTURA 23
Mikel Ayllon Bartzelonara, sortzera
Antzerki obra osatzeko literatura egonaldia egingo du idazle laudioarrak

KULTURA 20-21
Janire Etxaberen lan berria, taula gainean
Atxine ikuskizuna estreinatu du dantzari arrankudiagarrik Amurrio Antzokian

KIROLA 26-27
Uxue Alonso, eskubaloiko 2. mailan
Amaitu berri den denboraldian bigarren mailan debutatzeko aukera izan du laudioarrak

Atxikimenendu bila, norabidea aldatzeko

Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu dio eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari

AMURRIOKO UDALAREN EUSKARAREKIKO JARRERA HIZPIDE

NOLA FINANTZATZEN DA AIARALDEA KOMUNIKABIDEA? 3. or
EUSKARAK GEROZ ETA PISU GUTXIAGO UDAL AURREKONTUAN 3. or
ANALISIA: EUSKARAREN LEHIA DESLEIALA? 4-5. or
DATUAK: ZENBAT DIRU PUBLIKO JASOTZEN DUTE ERDERAZKO KOMUNIKABIDEEK EUSKARA SUSTATZEKO? 5. or
AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK JASOTAKO BABES MEZUAK 6. or
MANIFESTUA: AMURRION EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU! 7. or

Ikasturte osoa:
660€



Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

50 urtetik gorako esperientzia Cambridgeko azterketak prestatzeko zentroa

fundacionidiomas.eus

Herriko plaza 8, LAUDIO · 946 572 938

analisi

Atxikimendu kanpaina abiatu da Amurrioko Udalarai Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza berrezartzea eskatzeko. Agerraldi herritarra egingo da ekainaren 21ean, 19:30ean Amurrioko Udaletxearen aurrean, helburu berarekin. Norbanakoei eta eragile zein elkarteei luzatu zaie ekimenarekin bat egiteko deia.

Atxikimendu kanpaina abian, Amurrioko Udalak dirulaguntza itzuli diezaion Aiaraldea Komunikabideari

Testua **Aiaraldea Komunikabideko lantaldea**

Bi aste igaro dira Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabideari dirulaguntza kendu ziola jakinarazi zenetik. Ordutik hona entitate eta norbanako ugari helarazi diote elkartasuna eta babesa euskararen biziberritzea helburu duen proiektu honi, eta Euskal Herriko hainbat komunikabidetan izan du oihartzuna albisteak.

Udala, bere aldetik, ohar bat argitaratzera mugatu da, argudiatuta "inguruko autonomoak eta enpresa txikiak babesteko" kendu duela dirulaguntza. Aiaraldea Komunikabideko kideek analisi zabal baten bidez erantzun diete bertan plazaratutako argudioei (hamabostekari honen hurrengo orrialdeetan irakurri daiteke osorik).

Gaur gaurkoz, tokiko erakundea ez da harremanetan jarri oraindik komunikabidearekin. Hedabideak ez du inolako jakinarazpenik jaso Udalaren partetik, apirilaren erdialdetik daraman arren alkatearekin bilera eskatzen.

Atxikimendu kanpaina

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak (Aiaraldea Komunikabidearen atzean dagoen irabazi asmorik gabeko entitateak) bilerak egin ditu azken asteetan Amurrioko bazkideekin. Batzar horietan zirriboratu eta adostu da egoera bideratzeko hartu beharreko bidea.

Egoera ikusita, ondorioztatu da badela unea urrats bat gehiago emateko, atxikimendu kanpainari hasiera emanez. Hamabostekari honen 15. orrian topatu daiteke euskarazko hedabideen aldeko manifestua. Eskualdeko norbanako eta elkarte zein eragile orori luzatzen diogu testu horren aldarririkin bat egin eta atxikimendua helarazteko gonbita.

Hiru aldarri nagusi ditu manifestuak, hirurak Amurrioko Udalarai bideratuak. "Udalerriko zein

eskualdeko euskalgintzaren eragileekin elkarlana estutzea" eskatzen zaio tokiko erakundeari, "euskararen biziberritzean eragile aktibo bilakatzeko".

Horrez gain, Aiaraldea Komunikabidearekin biltzea ere eskatzen zaio, eta "azken hamabi urteetan eman dion diru-laguntza berrezartzea". Are gehiago, diru-laguntza horren zenbatekoa "eguneratzea" ere eskatzen du manifestuak, "eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz".

Izan ere, Amurrioko Udalak 2018tik zeukan izoztuta Aiaraldea Komunikabideari ematen zion dirulaguntza, 0,6 zentimo emanaz biztanle bakoitzagatik (6.000 euro guztira). Eskualdeko gainontzeko Udalek, aldiz, urte horretatik daramate 0,7 euro ematen biztanleko. Beste behin, Amurrioko erakunde publikoa izan da atzean geratzen den bakarra.

Komunikabideak ez du inolako jakinarazpenik jaso Udalaren partetik, apirilaren erdialdetik daraman arren alkatearekin bilera eskatzen

Agerraldia ekainaren 21ean

Manifestuari lotuta, hitzordu bat ere jarri da mahai gainean. Agerraldi herritarra deitu du Aiaraldea Komunikabideak ekainaren 21ean (ostirala), 19:30ean Juan Urrutia plazan, Amurrioko Udaletxearen aurrean. Aiaraldea Komunikabidetik eskualde osoko baina, bereziki, Amurrioko elkarte eta norbanako guztiei luzatzen diegu bertaratzeko gonbita, euren taldearen bereizgarriren batekin.



Aiaraldea Hemen hamabostekariaren aurreko zenbakian agertu zen albistearen lehenbiziko aldiz. Aiaraldea.eus

Euskarazko komunikabideek jasotzen duten euro publiko bakoitzagatik batz-beste 6 eta 9 euro artean itzultzen dizkiote gizarteari

Euskal Hedabideen Behatokiak azken hilabeteetan euskarazko komunikabideen balio soziala neurtzeko ikerketak egin ditu Aiaraldea Komunikabidearen oso antzeko jardun ekonomiko eta soziala duten Arabako Alea eta Debagoieneko Goienari buruz.

Eneko Bidegain, Aitor Zuberogitia eta Txema Egaña Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko ikertzaileek gidatutako ikerketek emaitza oso argiak utzi dituzte agerian: **euskarazko komunikabideek jasotzen duten diru publikoko euro bakoitzagatik 6,85 eta 9,22 euro artean itzultzen diote gizarteari.**

Kontabilitateko balioaz gain, elkarte edo enpresa baten jardunak sortzen duen bestelako balioa neur-


tu nahi izan dute ikerketa hauetan. Batz-bestearen, balio sozioekonomikoa soilik aintzat hartuz, Alea komunikabideak adibidez, 2022an dirulaguntzen bitartez jasotako kopurua halako 2,87 bueltatu dio gizarteari zergetan: sortutako lanpostuetan, gizarte-segurantzari egindako ekarpenetan, hirugarrenen zerbitzu salerosketan...

Are gehiago, kopuru horri "balio sozial espezifiko" erantsiz gero, jasotako euro bakoitzeko 6,85 euro itzuli zaizkio gizarteari; sortutako material pedagogikoaren bitartez, elkarte, udal zein edozelango entitateen bozgorailu lanak eginez, gizarte-kohezioan egindako lanaren bitartez, zein euskararen ikasketa prozesuan lagungarri izan den eguneroko prentsa sortzen, besteak beste.

Nola finantzatzen da Aiaraldea Komunikabidea?

Aiaraldea Komunikabidearen 2019-2023 epealdiko kontu ekonomikoen laburpena

GASTUAK 1.541.221,38€



DIRU SARRERAK 1.054.891,41€ %68,45



KOMUNIKABIDEAK JASOTZEN DITUEN DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN BERE GASTUEN %40A FINANTZATZEN DUTE

AMURRIOKO UDALAREN LAGUNTZA EKONOMIKOAK GASTUAREN %2A BAINO EZ DU FINANTZATZEN

KOMUNIKABIDEAREN PUBLIZITATE ETA ZERBITZU SALMENTEK GASTUAREN %28A FINANTZATZEN DUTE

KOMUNIKABIDEAREN GASTUAREN %31A AIARALDEA KOOP. ELK.AREN EKARPEN PROPIOEN BIDEZ KUBRITZEN DA. URTERO 100.000€ -KO DEFIZITARI AURRE EGIN BEHAR DIO.

- Bazkideen kuota bidezko ekarpen desinteresatu bidez.
- Euskararen zabalpenerako bestelako zerbitzuen bidez.
- Borondatezko ekarpenen bidez.

Saldutako zerbitzuak, publizitatea eta Aiaraldea Koop. Elk.aren ekarpena kontuan hartuta, Komunikabideak bere gastuaren %60a finantzatzen du bere kabuz

Euskarak geroz eta pisu gutxiago du Amurrioko Udalaren aurrekontuetan

%8ko jaitsiera egon da 2024an euskara arlora bideratutako den diru kopuruan, iaz baino 33.945,52€ gutxiago.

Euskara arlora bideratutako Udalaren aurrekontu osoaren pisu espezifikoak nabarmen egin du behera Txerra Molinuevok (EAJ) aginte makila hartu zuenetik; 2021ean %2,56koa zen eta 2024an aldiz, %1,51koa.

Ehunekoak ez ezik, 2024an euskara arlora bideratutako den diru kopurua iaz baino 33.945,52€ txikiagoa da (%8ko jaitsiera).

Baina zertara bideratzen da dirua euskara arloko aurrekontuan? Nahikoa al da?

2024 urteko aurrekontu hauetan, giza-baliabideetan 86.266 euro inbertituko dira, arloko aurrekontuaren %20. Bigarren diru partida esanguratsua "Oporretan euskaraz" haurrentzako udalekuen diru-partidarena da, 105.744,18 eurokoa, arloaren %24,70 bereganatzen duen jardura da hau (aurrekontu osoaren laurden bat).

Euskara biziberritzeko baliabide publikoak zertara bideratu behar diren zehaztea, instituzio publikoen eta eskalgintzaren arteko aspaldiko gatazka-ardatza da. Haurrentzako udalekuak Euskara Arloak ordaindu behar ditu euskaraz garatzen direlako? Euskarazkoak diren kultur-ekitaldiak ere Euskarak ordaindu behar ditu, eta Kulturak gaztelaniazkoak? Udalekuak ez liriteke (inguruko udal gehienetan bezala) gazteria, kultura edo beste arloren baten aurrekontuetatik ordaindu behar?

Arloaren aurrekontu osoaren ia erdia bi lerro horietan xahutzen da beraz, eta euskara biziberritzeko egitasmo zuzenetara, beste erdia.

Jaurlaritzaren irizpideak


Eusko Jaurlaritzak gutxienez aurrekontuaren %2a euskara biziberritzeko dinamiketara bideratzea aholkatzen du,

langile gastuak aintzat hartu gabe, Bide batez, aholku berdin horrek zehazten du euskara arloak 4 langile osoren deikazioa beharko lukeela (bi euskara teknikari, itzultzaile bat eta trebatzaile bat) Amurrioko bezalako udalerriri batean, eta udalerriri hori ez da 1,5 langilera ere iristen.

Horrekesan nahi du, langile gastuak kenduta, Amurrioko Udalak bere aurrekontu osoaren %1,20a baino ez duela bideratzen hizkuntzaren biziberritzera (341.930 €).

Udalekuak, legokiokeen bezala, beste arlo batek kudeatuko balitu, aldiz, 236.186 eurokoa litzateke euskara biziberritzeko egitasmo zehatzetara bideratutako diru-kopurua: Udal-aurrekontu osoaren %0,82. Jaurlaritzaren gomendiotik oso-oso uruti.

Komunikabideari laguntza Amurrioko Udalak Aiaral-



ITURRIAK: Amurrioko Udalaren gardentasun ataria, 2024ko aurrekontuak Amurrioko Udalaren kontratatzailearen profila

dea Komunikabideari esleitzen zion eta orain kendu dion diru-laguntza, instituzio osoko aurrekontu orokorraren %0,021 zen, eta euskara arloko aurrekontuaren %1,40.

Komunikabideari kenduta laguntza gorabehera, ezinezkoa da baliabiderik gabe Euskara Planak betetzea, euskararen normalizazioan aurrera egitea ezinezkoa da,

eskua artean ditugun erroñkei aurre egitea ezinezkoa da. Amurrioko Udal Gobernuak ez al du euskararen biziberritzean aurrera-urratsik eman nahi?

Baliabide publikoak txikitu beharrean, handitu eta adituek dioten neurriraino igo beharko litzateke euskararen biziberritzeari egiazko bultzada bat eman nahi bazaio.

analisi

Euskararen lehia desleiala?



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Aiaraldea Komunikabideak apirilaren 15etik darama bilera bat eskatzen Amurrioko Udalari diru-laguntzaren ezabatzeari buruz hitz egiteko, bide ofizialak (Herritarren Arretarako Zerbitzuan eskaera erregistratzea) zein ez-ofizialak (alkateari zuzenean telefonoz deitzea) baliatuta.

Orain arte, komunikabideak ez du inolako erantzun ofizialik jaso tokiko erakundearen partez, baina albistea publiko egin eta hara! Udalak pilak jarri eta 24 ordu baino gutxiago behar izan ditu erantzun bat plazaratzeko (bere webgunean eta komunikabideei bidalitako prentsa oharrean, noski). Aiaraldea Komunikabidearekin oraindik ez da harremanetan jarri hilabete bat baino gehiago mahaigainean darama bilera eskaerari erantzuteko.

Oharrean, Udalak tesi nagusi bat baliatu du diru-laguntzaren ezabatzea justifikatzeko: Aiaraldea Komunikabideak "lehia desleiala" egiten diela eskualdeko autonomo eta enpresa txikiei. Zergatik? Argi eta garbi dio oharra: "enpresa pribatu bat" delako eta gainontzeko "tokiko ekintzaileek" ez dituztelako horrelako diru-laguntzak jasotzen. Beste modu batean esanda: Aiaraldea Komunikabideari ematen zitzaien diru-laguntzak merkatu libre desorekatu egiten zuten eta Udalak ezin zuten beste alde batera begiratu, merkatua orekatzeko betebeharra zuten, nahitaez.

Tesi hori indartzeko, komunikabideak eginiko 14 urteko ibilbidearen genealogia propioa plazaratu du Udalak. Horrela dio kontakizunak: "Duela 10 urte baino gehiago, hainbat administrazio publikok dirulaguntzak eman zituzten, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz, eskualdeko euskarazko hedabide bat bultzatzeko. Hala ere, azken 12 urteetan, Aiaraldea Faktoria euskararekin zerikusi gutxi duten zerbitzu komertzial ugari eskaintzen dituen enpresa pribatu baterantz eboluzionatu du. Enpresak web orriak, komunikazio zerbitzuak, gaztelekuak kudeaketa, udalekuak, ludotekak, udal aldizkariak, jaien programak, herri bazkarien antolaketa, tokiko produktuen salmenta eta ostalaritza lantzen ditu, besteak beste".

Ea, goazen puntuz puntu. Ezer baino lehen, parentesi bat: "Aiaraldea Faktoria" ez da Aiaraldea Komunikabidearen atzean dagoen figura juridikoaren izena. Hori Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak litzateke (baina tira, zehaztasuna ez da ezta Udalaren oharraren puntu fuertean).

Harira itzuliz, goazen Udalak eginiko errelatoaren atzean dagoena azaltzera: Bai, **duela 10 urte baino gehiago (2012an, zehazki), hainbat administrazio publikok (eskualdeko 9 udalek, alderdi politiko guztietako ordezkarien adostasun eta inplikazioarekin) euskara sustatzeko hitzarmen bat sinatu zuten Saraubeko Mahaian, zeinetan Aiaraldea Komunikabideak (garai hartan webgune bat soilik zena) ekonomikoki babes-tera konprometitu ziren.**

Eta bai, denbora asko igaro da ordutik hona, eta gauza asko aldatu dira. Aiaraldea.com zena Aiaraldea.eus bilakatu zen. 2013an paperera egin zuen jauzi komunikabideak, hamabostean behin eskualdean doan banatzen den hamabostekari batekin. KOMUNIKA enpresaren sorrera ere sustatu zen, komunikazio zerbitzuen bidez komunikabidearen jarduna finantzatzeko. Ikus-entzunezkoen garapena, bestelako euskarriak plazaratzea... mugarriz mugari joan da eraikitzen komunikabidearen 14 urteko historia hauxe.

Proiektuaren dimentsioa eta osaketa ere aldatu da: hasieran boluntario hutsez osatutako egitasmoa zen. Gero etorri ziren langileak, eta ordutik hona egitura mistoa mantendu du proiektuak. Gaur gaurkoz, komunikabidearen eguneroko jarduna ezinezkoa izango litzateke atzean dauden dozenaka eta dozenaka boluntarioengatik izango ez balitz (bide batez, doakielatik hemendik besarkada bat artikulatu idatzi, argazki eta bideoak grabatu edota hamabostekaria auzoz auzo eta ikastetxez ikastetxe banatzen duten herritar guztiei).

Baina, bilakaerak bilakaera, inflexio puntu bat markatu behar bagenu Aiaraldea Komunikabidearen jardunean, 2015. urtea litzateke. Urte horretan abiatutako Gogoe-ta Estrategikoan, ondorioztatu zen "erdaraz bizi den eskualde baten berri euskaraz ematera" mugatu zela Komunikabidea ordura arte,



Amurrioko alkatea, 2022an Udalak hartutako Korrikaren kilometroan. Aiaraldea.eus

eta bazela garaia urrats bat aurrera eman eta euskaraz biziko ziren errealitate berriak sortzeko.

Esan eta egin. Ildo berriak sortu ziren: Kokoriko Hezkuntza Faktoria (hezkuntza ez-formalaren esparruan eragiteko), Feminismoaren ildo, Kultura Faktoria, Elikadura burujabetzarena edota Ekonomia sozial eraldatzailearena... denak helburu berarekin: euskaraz bizitzeko ahal bezain tresna sortzea eskualdean, euskalgintza eta eraldaketa soziala eskutik helduta joan behar direla ulertuta.

Planteamendu berriek tresna berriak behar dituzte askotan. **Horregatik erabaki zen komunikabideak ordura arte izandako elkarte izaera juridikoa utzi eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba bilakatzea.** Orduan jaio zen Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak, aipatutako ildo guztiak (komunikabidea barne) hartuko zituen aterki berria.

Tira, hau iritzi artikulatu bat izateko, jada asko luzatu gara dagoeneko azalpen honetan. Interesa duenarentzat, hemen dago aipatutako eraldaketa prozesuaren azalpen xeheagoa bat (agian Amurrioko Udaleko norbaitek ere irakurri nahiko du akaso, nahiz eta berez baduten aipatutako prozesuaren berri. Iaz, legegildaren hasieran, proiektu osoa aurkezteko bilerak egin ziren Udalekin, baina Amurriokoa atzeratu egin zuten, eta oraindik ez da egin).

Goazen aurrera...

"Enpresa pribatuen" zakua

Amurrioko Udalaren komunikatza itzuliz, deigarria da nola erabiltzen den bertan "enpresa pribatu"

terminoa. Titularrean eta testuan zehar behin baino gehiagotan nabarmentzen da Aiaraldea Komunikabidea gisa horretako entitatea dela.

Hitzak ez dira inoiz neutralak izaten. Gauza asko sartzen dira "enpresa pribatuen" zakuan, eta oso azkar ikusi daitezke sakuaren josturak.

Izan ere, tokiko erakundeak planteatzen duen mundu ikuskera murritzean, multzo berean sartuta egongo lirateke gizarte zibilaren ekimenez azken hamarkadetan sortu diren euskalgintzako ehun sozial gehienak, eta baita bere jabeak aberasteko helburu hutsarekin sortutako sozietateak ere. Dena batera, denak baitira gauza bera: "enpresa pribatuak".

Planteamendu hori bere azken ondorioetara eramanez, zaku berean egongo lirateke, adibide tonto bat jartzearen, Tubacex eta KORRIKA. Izan ere, ez dezagun ahaztu Euskal Herrian euskararen alde egiten den ekimen jendetsuena, Amurrioko Udalaren arrazoi-ketari jarraiki, "enpresa pribatu batek sustatutako ekimena" izango litzatekeela (nahiz eta hori ez zen oztopo izan 2022an KORRIKA Amurriotik abiatu eta Udalak lehengo kilometroetako bat hartzeko).

Baten bati agian irria marraztu zaio goikoa irakurtzean. Ba izan gaitzen serioak behingoz: Argi dago entitate batzuen eta besteen artean dagoen aldea. Baina, Udalaren komunikatuko arrazoiketa ikusita, badirudi xehe-xehe azaldu egin behar dela berez begien bistakoa dena.

Ez, "enpresa pribatu" guztiak

(denei horrela deitu ahal bazaie) ez dira berdinak. Tubacex eta antzeko sozietateen azken helburua bada euren akziodunei ahalik eta diru gehien ematea. Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak, aldiz, irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko kooperatiba da, eta dituen irabaziak (halakorik dagoenean) ez ditu inork bereganatzen: proiektu sozialetan berrinbertitzen dira, eskualdearen euskalduntzera bideratutako bokazio publikoko proiektuetan, alegia.

Hala eta guztiz ere, aurrera jarraitu aurretik, ohar inportante bat: Irabazi asmodun enpresek ere badute diru-laguntzak jasotzeko eskubidea. Eta, berez, jasotzen dituzte, bai Amurrioko Udalaren partetik eta baita bestelako erakunde publikoen eskutetatik ere. Tubacexen adibidera itzuliz, multinazionalak diru publiko andana jaso du azken urteetan. Aiaraldea Ekonomikoki Suspertzeko plan ospetsuko diru-partida gehienak ere enpresa pribatuen esku geratuko dira. Eta abar, eta abar.

Eta hori, berez, ez du zertan txarra izan. Diru publikoa zertara bideratuko den da gakoa. Aiaraldea Komunikabidearen kasuan, **Amurrioko Udaletik jasotzen diren 6.000 euroak komunikabidearen jardun publikoa finantzatzera bideratzen dira ehuneko ehunean. Ez da dirurik sobratzen: Komunikabideak 100.000 euro inguruko defizita du urtero, eta Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak lortu behar du zulo hori estaltzeko dirua.** Nola? Babazkideen kuotekin (SPAM: Egin zaitez bazkide), borondatezko bestelako ekarpenekin... eta bai, baita mota askotako zerbitzuak emanez. Harrien azpitik bilatzen



zionalenetatik herritarrenetara) aspalditik erdietsiak dituen adostasun zabaletatik. **Eusko Jaurlaritzaren zein Arabako Foru Aldundiaren plan estrategikoetan berriaz nabarmendu egiten da euskarazko komunikabideek garrantzi estrategikoa daukatela euskararen biziberritzean, eta eurekin elkarlana sustatu behar dela. Eta hala egiten dute bi erakundeek.**

Amurrioko Udalak, aldiz, kontrako bidea hartu duela dirudi, eta ez soilik Aiaraldea Komunikabidearen kasuan. Kasuak biderkatu egin dira azken urtean: Tokiko erakundeak uko egin dio parte hartzeari Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak euskararen alde planteatutako azken ekimenetan (Euskararen Semaforoan, jaietan euskara sustatzeko dinamikan edota udal hauteskundeetan konpromiso zehatzak hartzeko planteamenetan, besteak beste).

dugu dirua, dirurik ez baina onura sozial handia ematen duten proiektuak elikatu ahal izateko. Beste modu batera esanda: Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak lehia desleiala egin nahiko balie eskualdeko gainontzeko enpresei, gauza bat egin beharko luke beste ezer baino lehen: Aiaraldea Komunikabidea itxi.

Ez dezagun ahaztu: Amurrioko Udalarena diru publikoa da, eta interes publikorako erabili beharko litzateke. Aiaraldean euskarazko beste komunikabide bat sortuko balitz, eskubide bera izango luke diruz lagundua izateko. Baina, zoritxarrez, errealitatea oso bestelakoa da: Aiaraldea Komunikabidea da eskualdeko euskarazko mota horretako proiektu bakarra, eta Udalak berak sortutako komunikazio tresnak ez dira gizarte elebidun batean egon beharko lukeen gutxienez iristen (baina horrek aparteko analisi bat mereziko luke, aparteko artikulua bat mereziko lukeen bezala zertara doazen zehazki Udalak 2024an "euskara-arlorra" bideratuko dituen 428.000 euroak).

"Euskara denona da"

Bere komunikatua borobiltzeko, lema indartsu bat jartzen du Udalak mahai gainean: "Euskara publikoa da, ez pribatua. Euskara denona da". Irakurketa asko egin daitezke esaldi horren esanahiaren inguruan: Zer da euskara publikoa? Zer euskara pribatua? Nor sartzen da "denok" horren barruan?

Baina lema horrek, zerbait erakusten badu, bada zein urrun dagoen Amurrioko Udala euskalgintzako sektore anitzek (institu-

"Amurrioko Udala da kontrako norantzan joaten ari dena euskararen biziberritzean, eta abiadura azkartzen du, txapa bat jantzi eta lekuko bat hartzetik harago, konpromiso zehatzak eskatzen zaizkionean"

Baina ez hori bakarrik: euskararen teknikari lanpostua udal langileen zerrendatik ezabatzea erabaki zuen Udalak iaz (bai, bada kigu: gero atzera egin zuen, baina presio sozialari eta alkateak jasotako deiren bati esker). Egin duen azkena, aldiz, izan da langileen euskara profil derrigortasuna kentzea Amurrioko udal kirol guneen kudeaketarako lizitazio publikotik. Bata bestearen atzetik, gelditu gabe.

Amurrioko Udala da kontrako norantzan joaten ari dena euskararen biziberritzearen aldeko bidean, eta abiadura azkartzen du, txapa bat jantzi eta lekuko bat hartzetik harago, konpromiso zehatzak eskatzen zaizkionean.

Mahai gainean dagoena ez da euskara denona den edo ez. Denona da, bai. Beno, hobeto esanda, denona izan beharko luke. Euskara Amurrioko Udalarena ere baden da galdera.

NOLA BANATZEN DA DIRU PUBLIKOA?

Euskara hutsezko komunikabideei askotan leporatu zaie diru-publikoa barra-barra jasotzea. Errealitateak, aldiz, erakusten du diru gehiena gaztelarazko komunikabideen artean banatzen dela. Hona hemen horren bi adibide:


Jaurlaritzaren publizitate instituzionalaren banaketa

Epea: 2018-2022

El Correo	6.465.873 €
El Diario Vasco	4.397.376 €
Cadena Ser	4.132.556 €
Deia	2.483.871 €
Gara-Naiz	2.202.129 €
Noticias de Gipuzkoa	1.367.418 €
Berria	1.331.978 €
Noticias de Álava	1.093.351 €
Onda Cero	1.072.193 €
Onda Vasca	1.044.759 €
Los 40	780.463 €
El Mundo	419.800 €
El País	410.473 €
elDiario.es	354.839 €
Radio Popular	316.927 €
Cope	315.056 €
Radio Nervión	297.363 €
Cadena 100	263.682 €
Estrategia Empresarial	207.003 €
Tokikom	202.482 €
Hamaika TB	193.074 €
TeleBilbao	190.235 €
Bizkaia Irratia	180.269 €
Expansión	143.695 €
Tele 7	121.375 €
Radio 7	120.044 €
Cinco Días	108.013 €
ARGIA	105.430 €
Cadena Dial	69.139 €
Tele Donosti	54.801 €
Marca	40.109 €
Europa FM	33.076 €
Radio Gorbea	28.540 €
Hitzak	24.966 €
Segura Irratia	24.871 €

Jaurlaritzaren publizitate instituzionalaren banaketa

Epea: 2018-2022



Infografia: ARGIA | Datuak: Eusko Jaurlaritza | Iturria: gobiernovasco.marketing

1.000.000 euro

Publizitate instituzionalaren bidez eta ezohiko diru-laguntzetatik jasotako diru guztiaz gain, nagusiki erdaraz diren **14 komunikabidek (El Correo, Diario Vasco, Deia, Gara...)** milioi bat euro jasozuten iaz Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saitetik, "euskararen erabilera areagotzeko".

Diru publikoa irabazi asmodun enpresa pribatuei

Edozein sektoretan (berdin industrian, nekazaritzan, merkataritzan edo euskara arloan) diru-laguntzak ematen zaizkie egoera zaurgarrian dauden, gutxituak dauden, edota duten garrantzi estrategikoagatik sustatu eta babestutako enpresa eta elkarteei.

Enpresa horiek gainera, irabazi asmodunak dira gehienetan (Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak ez bezala, irabazi asmorik gabekoa dena); hala nola Tubos Reunidos, Tubacex (9,2 milioi euro 11 urtetan) eta industriari lotutako hainbat eta hainbat eskualdeko enpresa diruzlagundak. Era berean, eta inguru hurbilera begiratuta, Amurrioko zein Aiaraldeko ostalariek, merkatariek, ekoizleek edota berriki plaza jalgia diren txakolindegiek ere diru-lagun-

tzak jasotzen dituzte (eskubide eta zilegitasun guztiarekin), eta horrek ez du esan nahi leia desleiala sustatzen denik jasotzen ez dutenentzako.

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak dirulaguntza txiki bat jaso du orain arte Amurrioko Udalaren eskutik, Komunikabidearen aurrekontu osoaren %2a (6.000 euro). Nola nahi du Udalak komunikabideak urtero duen 100.000 euroko defizitari aurre egitea ez bada bestelako zerbitzuak emanez (denak euskarari lotuak)?

Datu hauei erreparatuta, "lehia desleialaren argudioak" ahulgune ugari dituela ikusi dezakegu. Geratzen den galdera bada ea Amurrioko Udalak bestelako arrazoirik duen dirulaguntza kendu izana justifikatzeko.

iritzia

Kezka eta elkartasun olatua Amurrioko Udalaren erabakiaren aurrean

Euskalgintzan aritzen diren hainbat norbanakok eta erakundek salatu dute Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntzarekiko erabakia eta euskararen kontrako erasotzat jo dute. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak irakurketa plazaratu du, baina ez da bakarria izan.



Lotsa
IRATI MARAÑÓN

Demagun Araba iparraldeko herri batean bizi zarela, 10.000 biztanle ingurukoa eta Bilbotik 30 bat kilometrora. Euskara aspaldi galdu zen han, XX. mendearen hasieran, ziurrenik; apur bat beranduago, akaso. Gaur egun, ordea, ezagutza datuak oso onak dira, bikainak, batez ere 40 urte-tik beherakoen artean. Erabileran, tamalez, herren dago euskara, eta egoera berean daude euskara berreskuratzen ari diren beste eremu batzuk.

Ikastetik erabiltzera, horra hor gakoa, edo beste modu batean esanda: eskolatik, kalera. Bide horretan, bada, soziolinguistek eta euskararen normalizazioan adituek hamaika aldiz esan dute eremu akademikoa ez dela aski euskaldunak sortzeko; hiztun potentzialek aldeko ekosistema bat behar dutela. Eta ekosistema horretan sartzen dira, noski, komunikabideak.

Aipatutako herri horretan, ordea, ez zen euskara hutsezko komunikabiderik, eta hara non, 2009an aiaraldea.com sortu zen (egun, aiaraldea.eus). Formatu erakargarri batek lagunduta, eta hainbat euskarri baliatuz, herri horren eta eskualde osoaren berri eman nahi zuen proiektua, alegia. Boluntario ameslari batzuek ereindako haziak fruituak eman zituen urteen poderioz, eta paperera ere jauzia egiteaz gain, Aiaraldea Kooperatiba Elkarte eratu zen 2020an eta Faktoria ireki zen 2021ean. Helburua gizartean ahalik eta esparru gehienetan eragitea da (hezkuntza, feminismoa, elikadura subiranotasuna...), eta euskaraz eragitea, gainera; eta horretarako funtsezko tresna da komunikabidea.

Herri horretako Udalak, tamalez, alde bakarrez erabaki du Aiaraldeari 2012az geroztik ematen zion dirulaguntza bertan behera uztea. Ematen duen argudioa da uste duela Aiaraldea Faktoria diruz laguntzen jarraitzeak lehia desleiala eragiten diela horrelako laguntzak jasotzen ez dituzten tokiko ekintzaileei. Eta hori gutxi ez, eta gehitzen du ezin dela onartu merkataritza-jarduerak dibertsifikatu dituen enpresa pribatu batek jatorriz euskara sustatzeko funts publikoak jasotzea. Aurpegia behar da gero!

Argudiook ez dute ez hanka ez buru, eta Txabi Alvarado kazetariak primeran desmuntatu zituen aiaraldea.eus-en irakur daitekeen iritzi artikulua batean. Besteak beste dio Amurrioko Udaletik jasotzen diren 6.000 euroak komunikabidearen jardun publikoa finantzatzera bideratzen direla ehuneko ehunean, eta ez dela dirurik sobratzen. Izan ere, "Amurrioko Udalarena diru publikoa da, eta interes publikorako erabili beharko litzateke. Aiaraldeen euskarazko beste komunikabide bat sortuko balitz, eskubide bera izango luke diruz lagundua izateko. Baina, zoritxarrez errealitatea oso bestelakoa da".

Irakur itzazue bi testuok eta erabaki zeinen aldera lerratu nahi duzuen. Amurrion euskara normalizatzearen alde sekulako lana egin duen eta egiten ari den proiektu baten alde edo ustez abertzalea den udal batek (ez dezagun ahantz EAJk gobernatzen duela Amurrion) hartutako erabaki lotsagarri baten alde.

Euskalgintza Kontseilua
@kontseilua

Euskarazko tokiko komunikabideen ekosistemak ezinbesteko ekarpena egiten du euskararen normalizazio prozesuan, erabileraren sustapenean eta euskaraz bizi nahi duten herritarren eskubideen bermean.

Kezkaz jaso dugu @Aiaraldea komunikabideari diru-laguntza kentzearen erabakia.

Hekimen
@HekimenElkartea

Euskarazko komunikabideak ezinbestekoak dira gure hizkuntza eta kultura biziberritzeko, informazio eskubidea eta iritzi aniztasuna bermatzeko... Funtzio sozial garrantzitsua betetzen dute. Fake news eta Big Tech garai huetan laguntzak handitu egin behar dira, ez txikitu edo eten

Tokikom.eus
@toki_kom

Euskarazko tokiko hedabideetan ezinbestekoa da udalen laguntza, baita Amurriokoa ere. Goragoko erakundeei moduan, laguntza arazoitzen da euskara eta gertuko informazioa buzoiz buzoiz doan banatzearen singularitategatik. Ezinbestekoa tokiko demokraziarako. Aurrera @aiaraldea

OlatuKoop
@OlatuKoop

Babes osoa gure sarekide @Aiaraldea komunikabide kooperatiboari Amurrioko Udalaren aldetik jasotzen duen tratuagatik. Euskaraz eta duin lan eta bizitzeko ezinbestekoak diren proiektuen alde. #ESE #Koopmaitasuna #EuskarazkoHedabideenAlde #Erriomagara!

Koop57 Euskal Herria
@Koop57_EH

Albiste onartezina atzo jaso genuena. Babes osoa gure bazkide Aiaraldea Komunikabideari, eskualdean dagoen euskarazko hedabide bakarrari. Eta esker mila egiten duzuen lanagatik, ezinbestekoak zarete!!

@EkintzaFaktoria
#AmurrionEuskarazBiziNahiDugu
#EuskarazkoKomunikabideenAlde

gotzon barandiaran
@gotzonbarandi

Euskaldunok, euskaraz sortzen dugunok eta euskaraz ezinbestekoak ditugu gure herria eta mundua euskaraz kontatuko duten hedabideak. Komunikazio esparru propioa behar dugu. Laguntzak eten baino, bikoiztu egin beharko litzazkieke. @AmurrioUdala -ren erabakia atzerapauso handia da

Ainara Lasa Perez
@ainariss

Planto egin behar dugu onartezina denaren aurrean, koskaz koska jan ez gaitzaten. Herri ekimenetik sortutako @aiaraldea-k hizkuntzaren biziberritzean betetzen duen funtzioak berebiziko garrantzia du eta pauso bat bera ere ezin dugu atzera egin. Hau ez da Aiaraldeen arazoa soilik.

Iban Arregi
@ibanarregi

Larria, oso. Oraindik horrela ibili beharra ere... Aiaraldea komunikabideari babes guztia @berria Taldearen izenean



Oldarraldia etxean da!

ASIER AMONDO



Azken bolada honetan euskalgintzan oldarraldiaz hitz egiten dugunean burura datozkigu epaileak, epaile hauek emandako ebazpenak, non euskara beti kalteturik ateratzen den. Baina itxuraz badago gure eskualdean beste oldarraldi bat "etxetik" datorrena eta euskararen aldeko ekimen eta dinamika itotzea helburu izan lezakeena.

Amurrioko Udalak azken bolada honetan euskararen inguruan hartu dituen erabakiak horrela erakusten digute behinik behin: 2023ko maiatzean, udal-hauteskundeetan atarian Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin biltzeari muzin egin eta ordezkari politikoei euskararekiko konpromisoak hartzeari uko egin zion, 2023ko uztailan euskara-teknikari lanpostua udal langileen zerrendatik ezabatzea erabaki zuen, 2024ko urtarrilan Amurrioko kiroldegia kudeaketarako lizitazio publikoan bertako langileen euskara profil derrigortasuna kendu zuen; Udalaren Euskara Planean kontrakoa zehaztuta dagoen arren, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin duen hitzarmena izoztuta dago 2016tik, 2024ko otsailan Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak "Euskararen Semaforoa" dinamika martxan jarri zuen eta Amurrioko Udalak ez zuen bat egin dinamika horrekin, 2024ko apirilean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren ekinbidez "Gora Aiaraldeko jai euskaldunak" dinamika aurkeztu zen, Audio, Urduña, Orozko, Artzi-niega, Aiara eta Arrankudiaga-Zolloko Udalekin batera.

Honetan ere Amurrioko Udalak kanpainarekin bat ez egitea erabaki zuen atek itxiz benetan euskaldunak eta euskaraz izango diren jaiak sustatzeari eta azkena, espero, Aiaraldea Komunikabideari dirulaguntza eten egin dio; erabakia urtariletik hartuta bazegoen ere orain jakin izan dugu.

Hau guztia ikusita esan behar duguna da OLDARRALDIA etxean dela, arestian esan bezala ez ditugu ez epaileak ez haien ebazpenak begiratu behar, batzuek; bere poltronetatik, euskararen kontra abiatzen dituzten ekinbideak oldartzea ere bada. Euskararen normalizazioaren aurka horrelako dinamika abiatzea euskararen kontra egitea da eta esan dezagun argi eta garbi, konplexurik gabe.

Amurrioko Udalak, azken urtean, euskararen kontra harturiko neurriek ze helburu dute? Euskara itotzea dute helburu? Euskara Amurrioko hizkuntz-mapatik desagertzea? Ez al die inork esan Amurrioko Udaletxeko kudeatzaileei egun euskararen aldeko dinamika beste batzuk direla, elkarlana, sustapen lana, erabileraren aldeko jarrerak sustatzea...

Honez gero, "postureoak" ez du balio. Administrazioei dagokizue euskararen aldeko politika eraginkorrak sustatzea, euskararen aldeko jarrerak sustatzea eta zuei dagokizue euskara liskarrerako gai ez bihurtzea.

Espero dut, txarto harturiko erabaki horiek guztiak bertan behera geratzea, horrela ez bada beste behin ere euskalgintzak hau guztia salatuko du eta tamalez aurrez aurre izango gaituzue.

Amurrion euskaraz bizi nahi dugu!

ATXIKIMENDU BILKETA

Azken hamarkadetan urrats esanguratsu asko eman dira euskararen biziberritze prozesuan. Euskaltegiak, ikastetxeak, komunikabideak, erakunde publikoak, euskara taldeak, kultur zein kirol elkarteak, eragile sozialak, norbanakoak... **Guztien ekarpena berebizikoa izan da** hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko.

Bide horretan, ezinbestekoa izan da beti **elkarlanerako espazioak** sortzen saiatzea. Erakunde mota ezberdinen arteko elkarlana, herritarren artekoa, ezberdinen artekoa. Inurri lan handiari esker, **kontsentsu zabalak** lortu dira euskararen biziberritzera bidean, eta hemendik aurrera ere horretan jarraitu behar dugu.

Baina, lorpenak lorpen, ezin gara geldirik egon. **Euskararen kale erabilerak ez du gora egin** eskualdean azken sei urteetan, eta beste hainbat esparrutan eginiko ikerketek ere kezkatzeko moduko datuak plazaratu dituzte. **Euskara bidegurutze batean dago**, eta bada unea bultzada berri bat emateko.

Bide horretan, **funtsezko zeregina betetzen dute Aiaraldea bezalako euskara hutsezko komunikabideek**. Eta, horregatik, **beharrezkoa da instituzio publikoetatik euren jarduna ekonomikoki eta sozialki babestea**, berebizikoa baita hizkuntzaren biziberritzarako.

Horregatik guztiagatik, honakoa **eskatzen dugu**:

1. Amurrioko Udalak udalerriko zein eskualdeko **euskalgintzaren eragileekin elkarlana estutzea**, euren aldarri eta proposamenak babestea eta horietan aktiboki parte hartzea, modu horretan, euskararen biziberritzean eragile aktibo bilakatzeko.
2. Amurrioko Udala **Aiaraldea Komunikabidearekin biltzea**, bi entitateen arteko elkarlana berriz martxan jarri eta normalizatzeko.
3. Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabideari azken hamabi urteetan eman dion **diru-laguntza berrezartzea** eta babes ekonomiko horren zenbatekoa eguneratzea, eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz.

Era berean, eta elkarlan horretan sakontzeko beharra aldarrikatzeko, datorren **ekainaren 21ean (ostirala) arratsaldeko 19:30ean Juan de Urrutia plazan elkartzeko deialdiarekin bat egiten dugu**.

Euskarak denona izan beharko lukeelako, eman ditzagun horren aldeko urratsak!

Eman zure atxikimendua hemen:
www.labur.eus/amurrioneuskarazbizinahidugu



AGERRALDI HERRITARRA
Ekainak 21, ostirala, 19:30ean
Amurrioko Udaletxearen aurrean

herriz herri

Amurrio



NAGORE AYESA ARANOA
AMURRIKO EMAKUMEON* SAREA

Amurrioko Emakumeon* Sareak Zaintzen III. Foroa kalera atera du, Udalarekin lantzen ari den proposamena zabaltzeko



Pasa den ostiral arratsaldean, Amurrioko Emakumeon* Sareak antolatuta, Zaintzen III. Foroa egin genuen Amurrioko parkean.

Sarean, Euskal Herriko mugimendu feministak, zaintza eskubide kolektiboaren inguruan, orain dela bi urte baino gehiago hasi zuen lana eskualdera eta udalerrira ekartzea beharrezkoa dela uste dugu.

Ildo honetan eta azaroaren 30an egin zen Greba Orokorraren inguruan, Amurrioko Udalean onartu zen mozio bat aurkeztu zen, non, Udalak, besteak beste, zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzen du eta bermatzen du.

Hartutako konpromisoerantz emateko eta Amurrioko Emakumeon* Sareak egindako eskaeraren ondorioz, Amurrioko Udalak Zain-

tzaren gaiaren inguruko lan-ildo proposamena aurkeztu zigun. Proposamen hori, konkretuki, Zaintzen III. Foro horretara eraman da. Alde batetik, ezagutarazteko, eta, bestetik, parte hartu genuen guztion artean hausnarketa eta ekarpenak egiteko.

Amurrioko Emakumeon* Saretik Udalarekin proposamena lantzeko ireki den bidea positiboki baloratzen dugu. Baina hau bidearen hasiera besterik ez da. Gaiak duen garrantzia eta sakontasuna kontutan hartuta, aurrera egiteko, konpromisoak betetzeko neurriak zehatzak eta eraginkorrak izan behar dira. Gainera, erantzukizuna guztiona izan beharko litzaketeke eta gainean egon behar gara prozesu honetan guztian, parte hartzea zabala izan behar dela uste dugulako.

Arrankudiaga-Zollo

Garbigune mugikorra egongo da hamabost egunez Arrankudiagan

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Etxeetako zenbait hondakin botatzeko gunea jarri dute Arrankudiagako Elexalde plazan, eta hamabost egunez egongo da bertan. "Birziklapenaren kontzeptua erraztea eta hurbiltzea" da ekimenaren xedea, Udalak azaldu duenez.



Hamabost egunez egongo da garbigunea plazan. Aiaraldea.eus

Artziniega

Embutidos Arceniega itxiko dute ekainaren 30ean, belaunaldi aldaketa faltagatik



Embutidos Arceniegak bere saltokia du eta banaketa sarearekin. E.A.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Embutidos Arceniega hestekien enpresak iragarri du bere jarduera etengo duela ekainaren 30ean. Horrela erabaki zuen akziodunen kontseiluak maiatzaren 21ean.

Aiaraldea Komunikabidea arduradunarekin jarri da harremanetan eta berak azaldu du itxieraren arrazoi nagusia adina izan dela. Hau da, berak enpresaren kudeaketa utziko du eta ez dute topatu norbait ordezkatzeko. Embutidos Arceniegak bost langile ditu gaur egun.

Gauzak horrela, enpresako jabeek aipatu dute prest dardela eskaintzak aztertzeko eta konpainia saltzeko, pro-

posamen interesgarriak egin ez gero.

Printzipioz, Embutidos Arceniegak bere jarduera bertan behera utziko du ekainaren 30ean eta ohiko ordutegiak izango ditu egun horretara arte. Hortaz, euren produktuen zaleei gogoratu diete biltegiak betetzeko aukera dutela.

1940an sortuta

Avelina Torre Revillak sortu zuen enpresa 1940an eta geroztik bere errezetek eta hestekiek harrera oso ona izan dute; odolosteek, lukainkek edota saltxitxek, besteak beste. Izan ere, gaur egun kanpoan ere dituzte bezeroak, Artziniegan eta Aiaraldean

Aiara

Inor ez da joango espetxera Soxoko legez kanpoko hiltegiagatik

Testua
Aitor Aspuru Saez

2018an hasitako auzia iragan maiatzaren 27an amaitu zen Gasteizko Epaitegian ezusteko emaitzarekin. Izan ere, EFE agentziak azaldu duenez, Fiskaltza hamaika urteko espetxe zigorra eskatzen hasi zen akusatuei eta, azkenean, absoluzio ugariekin eta zigor txikiekin bukatu da epaiketa.

Lehenik eta behin, saioa hasi eta gutxira, hamahiru akusatuetako zazpi absolutu

zituzten epaileek Amurrioko Epaitegiak epez kanpo deitu zituelako deklaratzera.

Gero, fiskalak eta defentsa abokatuak adostu zuten sei epaituentzako zigor txikiak ezartzea. Legez kanpoko jardueraren bi buruek urtebeteko zigorra onartu zuten; sei hilabetekoa animalien aurkako tratu txarragatik eta beste sei osasun publikoaren kontrako delituengatik.

Beste lau akusatuek hiru hilabeteko espetxe zigorra hartu zuten euren gain eta 360 euroko isuna.

Laudio

Amaitu da Autoglas-Glavistaren erregulazio espedientearen kontsulta fasea, akordiorik gabe

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Enpresa Batzordeak akordioa proposatu zuen, kale-ratze bidegabea ematea edo Guardianek langileak berro-nartzea exijituz, baina multinazionalak uko egin zion ezer negoziatzeari.

Amaitu da Autoglas-Glavista-tako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen kontsulten fasea. Atzo egin zuten azken bilera Laudioko udaletxean. Langileen ordezkariak gain, Parter Capital, Autoglas eta Guardianeko abokatuak bertaratu ziren bilkurara, baina ez zuten ezer adostu.

Enpresa Batzordeak akordio proposamen bat jarri zuen mahaigainean, bi aukera posibleekin: kaleratze bidegabeak deklaratzeko edo Guardianek langileak berronartzea. Multinazionalak zein Parter Capitaleko kideek, aldiz, uko egin zioten ezer negoziatzeari, ELAks salatu duenez.

“Guardian zein Parter Capitaleko abokatuak defendatu dute ez dutela enpresa-talderik osatu, eta une bakoitzean eskatu zaien dokumentazioa eman dutela”, azaldu dute sindikatuko kideek, baina gaineratu dute ez daudela horrekin ados. Izan ere, gogorazi dutenez, prozesua zazpi hilabetez egon da geldirik bi enpresek epaileak eskatu-

tako dokumentazioa entregatzeke zutelako.

Ebazpena hilabete honetan
Kontsulta epea amaituta, epailearen esku geratu da prozesua. ELAren aburuz, hilabete honen amaierarako aurrekusi dute ebazpena ateratzea, baina ez dute aparteko sorpresarik espero. “Ezuztekorik ez badago, Autoglaseko langile guztien kontratuak deuseztatzea aginduko du autoak”.

Hala ere, ebazpen horretan aipatuko diren xehetasunak “bereziko garrantzia” izango dutela ohartarazi du sindikatuk, “gerora egon daitezkeen prozesu judizialei begira”.

Zuzendaria atxilotuta

Guardianek 2020an saldu zion Autoglas-Glavista Parter Capital inbertsio funtsari. Langileek uste dute iruzurra gertatu zela operazio horretan, eta hori da oraingo prozesu judizialean argitu nahi dutena.

Izan ere, Parter Capital “putre-funts” bat dela salatu dute beharginek behin baino gehiagotan. Hain zuzen, iragan maiatzaren 14an atxilotu zuten Rüdiger Terhorst (Parter Capital inbertsio funtsaren bazkide zuzendaria) Frantzian, ArjoWiggins enpresa porrotera eramatea leporatuta.

Urduña


Urduñan egingo da datorren urteko Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaia

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Euskal Eskola Publikoaren jaiaren 31. edizioa egin zen igandean Ordizian. Bertan eskaintako ekitaldian Urduñako eskola publikoko kideek hartu zuten lekukoa, datorren urtean hiri horretan ospatuko delako jaia. Modu horretan, eskualdera itzuliko da ospakizuna hamabost urteren ostean. Amurrion egin zen azkeneko aldiz, 2010ean.



Jaiaren lekukoa hartu zuten urduñarrek igandean. Goierri Irrati Telebista





AIARALDEA IBILIZ

Aiaraldeko II. udaleku ibiltariak
IRAILAK 1-5



Oroskotik



Tertangara

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA (izena emateko azken eguna uztaillak 31)

www.faktoria.eu 693 855 312 (Aritz)	Bazkideak 75€ Ez bazkideak 90€	14-17 urte bitartean (2010-2007)
---	---	--

**QUICK PC
REPAIR**
Informatika argi eta erraz



**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA**
gainkosturik
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

herriz herri

Aiaraldea



Mugaezin!

LAUDIO ETA ARESKETA IKASTOLETAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAK

Horrela, mugagabeen, dugu 2024ko Araba Euskaraz leloa. Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarriz, euskararentzako espazio zabalagoak irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat.

Hegomendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorri erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gurera.

Gure gogoia, borondatea eta grina ere mugaezinak dira.

Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. Arabako zortzi ikastolak elkarrekin ari gara aurten ere Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietan martxan jarri dugun ereduari jarraipena emango diogu, auzolana eta elkar-lana ardatz hartuta, eskuz esku, buruz buru, gure jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz. Eta azken bi urteotan bezala, Olarizun ospatuko dugu, Araba Euskaraz, 2024ko ekainaren 16an.

Araba Euskaraz gure lurraldeko bazter guztietara eramaten ari gara aurten ere, urtean zehar antolatu ditugun ekimen desberdinen bitartez. Gure eskualdean, adibidez, maiztean izan den GOAZEN! kontzertua bezalako ikuskizuna izan dugu.

Ikastola guztion artean egiten dugun auzolan honi esker, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaintzen diegu. Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskaraz bozgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskaraz agertokia; eta arabarrok ere behar dugulako Araba Euskaraz topagunea eta arnagunea.

Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskaraz antolaketarekin Oiongo San Bizente ikastola lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzeko

eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatuko dugu gure jaia.

Eta noski, jai honen bitartez, argi dago, Arabako eta gainerako lurraldeetako ikastolarekin komunitate bat osatzen dugula. Oionez gain, Araba Euskaraz aiaraldeko ikastolen proiektuentzat ere sostengua ematen digun beharrezko tresna da. Hau da, gure ikastoletako proiektua modu kolektiboan aurrera eramateko laguntza handia da eta proiektua sostengatu, indarberritu eta etorkizunera bideratzeko inbertsio ekonomikoa oso lagungarria. Esan egiten da herritik sortuak garela, eta horrelakoetan herriak berak aurrera egiten laguntzen digula egiaztatzen dugu.

Eta, nola ez, euskaraz bizitzea ahalbidetzen duen eguna ere bada Araba Euskaraz. Tamalez, euskara eta bere erabilpena normalizatua ez dagoen bitartean, honelako elkarguneak mantentzea oso garrantzitsua da euskarari eta euskal hiztunoi espazio eta denboran arnaguneak ematen dizkigulako gure hizkuntza eta kultura erdigunean jarritz.

Auzolana: Tonbola erraldoia antolatzen dugu Araba Euskaraz

Ikastolak kooperatiba bat gara, familionak dira ikastolak. Familiok hartzen ditugu erabakiak, proposamenak egin... eta izaera hori bere horretan mantentzea eta transmititzea dagokigu, ikastolen mugimenduaren lekukoa belaunaldi berriei bizirik eta indarberrituta transmititzeko. Kooperatibistak garen heinean, eta ahal dugun neurrian, ikastolak antolatzen dituen ekimenetan parte

hartzea dagokigu. Ekimen hauek garrantzia handia dute hezkuntza prozesuaren baitan; gizarteratze aktibo bat ahalbideratzen dute, gure seme-alabei erakusten dizkiegun baloreak praktikan jartzeko aukera eskaini, euskara ikasgeletatik haratago atera.

Hortaz, Arabako zortzi ikastolak Araba Euskaraz alde elkarrekin lanean ari garen heinean, Audio Ikastolari eta Amurrioko Aresketa Ikastolari, bertan izango den tonbola antolatzea egokitu zaigu.

Ardura hau aurrera ateratzeko, Ikastoletako komunitate osoaren laguntza ezinbestekoa izan dugu. Ikasturte osoan zehar parte hartzeko deialdiak luzatu ditugu, familiei euren ganbarak husteko eskatu diegu, inguruko denda eta negozioei ekimenean laguntzeko eta tonbolarako ekarpenak egiteko eskaerak luzatu ditugu, eta apurka apurka Tonbolarako sari zerrenda osatu dugu.

Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu lantaldean ari zareten kide guztiei. Ekarpen zabal eta ahalegin neurtezin hori egon izan ez balitz, ezinezkoa litzateke. Jende askok hartutako konpromiso txikiekin gauza handiak lortzen dira.

Lan izugarria egin da, baina oraindik asko dugu egiteko ekainaren 16ra arte eta Araba Euskaraz egunean Ikastolako komunitatea osatzen dugunon laguntza beharrezkoa izango da! Horietan aktiboki parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu.

Segi dezagun elkarrekin Araba euskalduntzen!

Araba euskalduntzen jarraituko dugu! Lagundu nahi diguzu? www.arabaeuskaraz.eus

Aiaraldea

Aurten ere ordutegi eta zerbitzu murrizketa egongo da Osakidetzan udan



Murrizketak salatzen agerraldia egin zuten dozenaka herritarrek duela bi aste Amurrioko anbulatorioan. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua
Aitor Aspuru Saez

Osakidetza azpizuzendariak jakinarazi du ordutegi eta zerbitzu murrizketak egongo direla udan hainbat osasun zentrotan, langileen oporrak direla medio. Egoera ez da guztiz berria, iaz gauza bera gertatu baitzen.

Eragin hori nabaritu duen EAEko herrien artean daude Laudio, Okondo, Artziniega eta Luiaondo. Halaber, ez dituzte zehaztu Etengabeko Arreta Guneek izango dituzten egutegi eta ordutegiak.

Artziniegak ez du jarduerarik izango uztailearen 29an eta 31n. Gainera, astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan ere ez du

Udako oporrek murrizketak eragingo dituzte Laudio, Okondon, Artziniegan eta Luiaondon

zerbitzurik eskainiko abuztuaren 1etik 16ra bitartean eta irailaren 9tik 13ra bitartean. Tarte horretan, 8:00etan ireki eta 11:00etan itxiko dute astearte eta ostegunetan.

Luiaondon ez dute inor artatuko ekainaren 28an eta astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan uztailearen 1etik 12ra bitartean eta abuztuaren 16tik 30era bitartean. Denbora tarte horretan 8:00etatik 11:00ak arte izango da irekiera ordutegia astearte eta ostegunetan.

Laudio ordutegia 8:00etatik 17:00ak arte izango da ekainaren 17tik irailaren 14ra bitartean. Okondon, aldiz, ohiko ordutegia izango dute, abuztuaren 16an salbu.

Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak alegazioak sustatu ditu Solariaren goi-tentsioko linearen kontra

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaraldeko Mendiak Bizirik plataformak alegazioak idatzi eta eskuragarri jarri ditu, herritarrek eurek aurkeztu ditzaten.

Taldeak kritikatu du Solariak ehun kilometroko goi-tentsioko linea eraiki nahi duela eskualdea zeharkatuta eta energia berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak ez duela mugatzen azpiegitura horien biderkatzea.

Halaber, plataformak honako adierazi du: "Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren jorkabidea errespetu falta da, Lu-

rralde Antolamenduaren zein Eusko Jaurlaritzaren arauak hausten baititu. Oso goi-tentsioko linea berri hau (400 Kv, 100 Km) Energia Berriztagarrien LPSko azpiegitura elektrikoetan ez dago aintzat hartuta eta indarrean dauden lurralde arauak urratzen ditu; hala nola hirigintzakoak, ingurugirokoak, nekazaritza eta basogintzakoak, azpiegiturazkoak, ondare kulturalarenak eta osasunarenak. Gehiegizkoa da, herritarrekiko mespretxu handia".

Alegazioa aurkezteko epea ekainaren 19an amaituko da.

Oscar Puente Garraio Ministroak onartu du C-3 lineako zerbitzua ez dutela modu egokian eskaintzen

Testua
Aitor Aspuru Saez

Oscar Puente Santiago Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministroak arlo horretako Senatuko batzordean parte hartu zuen iragan astean eta Josu Estarrona EH Bilduko senetariak zenbait galdera egin zizkion. Besteak beste, itaundu zion ea asmoa zuen neurriak hartzeko aldirikoen zerbitzua

fidagarria eta puntuala izan dadin Bilboko inguruetan, hau da, Aiaraldea barne. Ministroak erantzun zuen arazo nagusia trenak direla, eta hori konpontzeko urratsak egingo dituztela: "Tren berriak eramango ditugu eta, tren horiekin, beste zerbitzu-mota bat. Ordutegiak eta maiztasunak hobetuko ditugu".

Sindikatuak, aldiz, mesfidantzaz hartu dituzte Ministroaren hitzak.

Zure egunerokoaren parte gara

CuadraBus

OFICINA CENTRAL
Bilbao, Zubizarri kalea 10, 48102 Amurrio (Bizkaia)
www.cuadrapbus.com

T. 945 890 804
info@cuadrapbus.com

BATZAR OROKORRA

A I A R A L D E A
K O O P E R A T I B A
E L K A R T E A

Eguna: 2024ko ekainaren 15a, larunbata

Ordua: 10:00etan 1. deialdia/ 10:30tan 2. deialdia/ 11:00etan 3. deialdia

Tokia: Aiaraldea Ekintzen Faktoria (Errotari kalea 4-8, Laudio, Araba)

Kooperatibako bazkideei deialdia



elkarrizketa



Maria Jesus Azkona bere aitona argazkia eskuan duela, senidez inguratuta. Azkona sendia

“Bakea ematen du jakiteak non fusilatu eta ehortzi zuten nire aitona, baina baita amorrua ere, nire ama hori jakin gabe hil baitzen”

MARIA JESUS FUENTES AZKONA da Modesto Manuel Azkona Garaicoechearen biloba. Modesto Manuel Saratxon bizi zen Arabako Diputatu hautatu zutenean eta hilabete gutxiren buruan, Franco eta eskuin muturreko hainbat militarrek emandako estatu kolpearen egunean bertan, atxilotu zuten. Espetxeratu ondoren, fusilatu zuten. Ia 80 urtez bere familiak ez du jakin non zegoen bere gorpua, pasa den astra arte.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Lehenik eta behin, nola sentitzen zarete familian Manuelen kokapena jakinda?

Sentimenduen zurrumbiloa da. Tarteka bake izugarria sentitzen dugu, bereziki nik, baina badaude ere amorru uneak. Izan ere, nire amak, horrenbeste sufritu ondoren, eta bere nebak, ezin izan zuten jakin ezta noiz edo non hil zuten.

Bakarrik zekiten zergatik erail zuten; pertsona ona eta errepublikarrazateagatik. Horizen zekiten bakarra.

Tristura, poztasuna, bakea...

Ezin dugu deskribatu, baina bereziki esker ona lagundu gaituen jende guztiarekiko. Euren laguntza gabe ezingo genukeen zauria itxi. Zauria hor dago, baina itxita. Orain entzun behar dugu Oroimen Historikoko Legeak zauriak irekitzeko baino ez duela balio, baina kontrakoa da. Odolustearekin amaitzea eta norberaren buruarekin bakean bizitzeko balio du. Minaren zama arintzeko modu bakarra da.

Orain zer egin nahi duzue gorpuzkinekin?

Familia osoa nafarra gara, iloba bat kenduta, Argentinan bizi

baita. Hortaz, gure asmoa da nire eta bere jaioterrira ekartzea, Alesbesera. Zalantzak ditut. Ez dakit ehortziko dugun bere izena dagoen tokian, herriko gainerako eraildakoekin, edo bere alabarekin lurperatuko dugun.

Zein izan zen Manuelen bizitza?

Nire aitona Nafarroako maistra batekin zegoenez konduta eta Alesbesetik joan ziren Bilbora ardo negozio batekin. Ez zuten zorte ona izan horrekin. Nire amamak, edo nola ere, lan egin zuen Lamiakon maistra gisa eta gero Saratxora joan zen. Ez dakizkigu arrazoiak zehazki. Dena den, Manuelek ha-

rreman estua zuen Unión Republicana alderdia sortu zutenekin eta asko joaten zen Madrilera. Saratxon bizi zirenez, berak hauteskundeetan parte hartu zuen Amurrión eta Foru Aldundiko ordezkaria izatea onartu zuen, Diputatu gisa. Oso alaia zela esaten zuten eta bere emazteak esaten zuten unerik okerrenetan ere ez zuela irribarrea galtzen.

1936ko estatu kolpea gertatu zenean Manuel Gasteizen zegoen, Unión Republicana ordezkatzan Arabako Foru Aldundiaren lekuko hartu zuten kudeaketa batzordean, ezta?

Nire amonak bi seme-alaba zituen eta bere aita ere berarekin bizi zen. Eurek Saratxon zuten bizitokia, han egiten baitzuen lan maistra moduan. Baina Manuel Gasteizen zegoen, ostatu batean, politika jarraitzeko. Nire ama berarekin zegoen, iraileko errebalidarako prestatzen ari baitzen.

Biak zeuden han. Manuel lanean eta nire ama ikasten. Astebete lehenago argazkia egin zuten laurak paseatzen Gasteizen bertan.

Estatu kolpea izan bezain pronto atxilotu zuten.

Uztailaren 18ko gauean ostaturako joan ziren bere bila. Kalez jan-

elkarrizketa

tzitako bi poliziek eskatu zioten eurenkin joateko Gobernu Ordezkaritzara. Bera, oso modu inozentean, alaba ohean utzizuen lotan eta joan zen. Bahitu zuten.

Bere burutik ez zen pasa ihes egitea. Bazekien Franco eta armada matxinatu zirela, baina berak ez zuen ezer txarrik egin eta ez zen ezertaz beldur. Hori gogoratzen zuen nire amak. Berak hamalau urte zituen une horretan.

**Zein eragin izan zuen zure ama-
rengan hamalau urterekin egoera
horretan geratu izanak?**

Nire amak bere bizitzako azken urteetan askotan esaten zuen penaz ez zuela gogoratzen nork utzi zion koltxoi bat bere aitarentzat. Hasieran zoruan, porlanean, egiten zuen lo, ez zuen ezta koltxoirik ere. Larrituta bizi zen ez zuelako oroitzen nork utzi zion arropa... Garai horretan asko sufritu zuen. Bakarrik geratu zen hamalau urterekin uztailearen 18tik urtarrilaren 23ra arte. Egun horretan, Gurutze Gorriaren bitartez, lortu zuten bere familiako osaba batekin eramatea Nafarroara, baina berak ez zituen ezagutzen senide horiek.

Hilabete horietan kartzelara joaten zen janaria eramatera ostatutik. Bere ama hil arte, nire amak papertxo bat zuen, hainbat aldiz ikusi nuen, ezkutatu baitzuen, eta han idatzi zuen nire aitonak, Manuelek: "Izan zaitez beti errepublikar ona". Hori idatzi zuen eta kazolan sartu zion berarentzat, ezkutuan.

Bizipen lazgarriak neskato bantentzat. Gainera, leku arrotz batean egonda, bera ez baitzen Gasteizkoa. Bestalde, nire amak ezin izan zuen Saratxora ekarri, errepublikaren menpe baitzegoen.

**Eta Manueli gertatutakoa ez du-
zue jakin duela gutxi arte.**

Nik lortu nuen jakitea duela urte batzuk, baina behin nire ama eta osaba hilda. Printzipioz, agindua zen San Kristobal Gotorlekura eramatea. Hori esan zioten amari, baina kasualitatez, Alesbeseko osabak ezagutzen zuen hango zaindari bat eta berari esker jakin izan zuen ez zirela inoiz heldu. Bazekiten desagerrarazi zutela.

Urteakigaro ostean jakin genuen Bayasen hil zutela.

**Zure ama Nafarroara joan zen,
baina zure amamari oraindik bi-
daia luzea geratzen zitzaion bera-
rekin batzeko.**

Bidaia oso luzea. Nire amamak jakin zuenean bere alaba familia-
rekin zegoela Nafarroan, onartu
zuen Eusko Jaurlaritzako itsasont-
zia hartzea Ingalaterrara jotze-
ko. Berak ume talde baten ardura

**“Uztailaren
18an bertan
bahitu zuten
Manuel. Ez
zitzaion
bururatu ihes
egitea. Ez
zen ezertaz
beldur, ez
zuelako ezer
txarrik egin”**

**“San
Kristobal
gotorlekuko
espetxera
eramango
zutela esan
ziguten, baina
ez zen inoiz
heldu Manuel.
Desagerrarazi
zuten”**

**“Nire amak
hamalau
urte zituen
eta bakarrik
geratu zen
Gasteizen.
Ezin zuen
Saratxora
itzuli eta
espetxera
joaten zen
bere aitari
janaria
eramatera”**



Modesto Manuel Azkona Garaicoechea, atxilotua izan baino astebete lehenago. **Azkona sendia**

elkarrizketa

zuen eta Londresen amaitu zuen, haur talde handi batekin eta bere semearekin.

Nire birraitona bakarrik geratu zen Saratxon, Gurutze Gorriak Alesbesera eraman arte.

Nire amamak tratua onajaso zuen Londresen eta Mexikotik Espainiako Gobernuak edo Eusko Jaurlaritzak (ez dakitzehazki), esan zion sumatzen zutela Mundu Gerra berria gertatuko zela, eta hara joatea proposatu zioten, baina bere alabarekin batzeko hautua hartu zuen.

Senide berdinak hartu zituen etxean: bere semea, bere alaba eta nire birraitona. Ez zeukaten ezer, Londresetik ekarritako maleta txikia baino ez.

“Nik beldur handiz bizidut eskuin muturraren erasoaldia Oroimen Historikoaren Legearen kontra. Eskuin muturra oso arriskutsua da, oso krudelak baitira. Gutxi izanda ere, min handia egiteko gai dira”

Bizitza arrunta egiteko aukera izan zuen?

Ez, eskatu zuen berriro klaseak ematea eta aukera hori ukatu zioten. Zenbait urte igarota, berriro eskatu zuen eta ezezkoa eman zioten. Hirugarren aldian, Gasteizen eskaera egin ordez, Madrilerajoa ziren, Hezkuntza Ministroa ezagutzen baitzuten nire amamaren ugazabek. Aristokratak ziren eta nire amamakeurentzat lan egiten zuen, etxe-andereño gisa. Eurek eraman zuten Madrilerajoa. Horriesker eman

zioten maistra plaza berriro, baina debekatu zioten edozein arduraz izatea edo zuzendari izatea eta ezin zuen Araba zapaldu bost edo sei urtetan.

Hori nahiz eta Alesbeseko falangisten buruzagiak txosten onak egin bere alde. Dokumentu horiek nik dauzkat eta esaten dute katolikoa zela eta ez zuela inoiz ezer txarrik egin. Berez, Saratxoko eliza erretzen saiatu izana leporatzen zioten.

Bizitza oso gogorra izan zuen. Oso emakume isila bilakatu zen.


Nolako eragina izan zuen horrek zuen bizitzan?

Nik gogoratzen dut etxean Francori buruz hitz egiten zutenean, esaten zidatela nire osaba zela, etxetik kanpo ez nezan ezer kontatu. Herriko hainbat gizon ziren nire osabak, eta asko maite ninduten, hortaz, ez zitzaidan arrotza egiten.

Baina, hori dela medio, ezagutu nuen nik Donostian zer den beldurra. Udan eraman ninduten hara oporretan, aipatutako aristokraten etxera. Paseoan joan ginen eta jende ugari agertu zen. Nire amamak galdetu zien ea zer gertatzen zen eta erantzun zioten Franco hortik igaroko zela, hara joaten baitzen oporretan. Amama dardarka hasi zen eta nik ez nuen ulertzen zergatik emakume hain lasaia horrela jartzen zen. Beldur hutsa zen eta handik joan nahi zuen, baina nik, uste nuenez Franco nire osaba zela, hasi nintzen oihuka gertatzeko asmoa nuela, dirua eta litxarrerriak emango zizkidalakoan. Horrenbeste tematu nintzen eta hain zalaparta handia sortu nuen, ezen polizia batek behartu baitzuen nire amama lehen lerroan egoten Franco igaro bitartean. Dardarka egon zen etengabe. Nik ez nuen ulertzen zergatik jartzen zen horrela emakume horren lasaia. Gero ulertu nuen.

Nola egin zuen aurrera zure amamak?

Erriberako herri txiki batera joan zen klaseak ematera eta gero Alesbesera itzuli zen, erretiroa hartu zuenean, nire amarekin bizitzera. Dena den, min handia sortzen zion nire osaba Argetinan bizi-



Bayaseko (Miranda de Ebro, Burgos) hilerrian lurperatu zituzten erreprentak.

tzeak. Oso ausarta izan zen eta Argentinara joan zen zenbait hilabetez, osabarekin eta ilobarekin egoteko, nahiz eta nagusia izan.

Nola lortu zenuten argitzea non zegoen Manuelen gorpua?

Urteak eman genituen bila eta Facebooken topatu genuen testu bat, non Jesús Pablo Domínguez Varonak azaltzen zuen gertatu zuten. Gero nire aitonarekin batera erail zuten beste lagun senideekin jarri nintzen harremanetan.

Ondoren, Nafarroako Gobernuari azaldu nion gure kasua eta adie-

razi ziguten ezin genuela esku hartu nire aitona Arabako Diputatua zelako, eta bera Gaztelan hil eta ehortzi zutelako. Gauzak horrela, nire alaba harremanetan jarri zen Miranda de Ebroko Udalarekin. Nafarroako Fusilatuen Senideen elkartearen presidentea da eta birbilobagisa idatzizien eskutitza. Erantzun ona jaso zuen.

Udalak lortu zituen hilerriko giltzaketa hango oroimen historikoko elkarteari jakinarazi zioten egoera. Miranda de Ebroko Udalak ordaindu zuen desobiratzea eta gorpu pilotara zituzten. Aranzadi Zientzia

Elkartera bidali zituzten eta DNA laginak eman genizkien.

Hala ere, Aranzadik esan zigun DNAk ez zuela bat egiten inorekin. Duela hilabete gutxi Gogora Institutuak deitu zigun, jakiteko beste hurbileko senide bat genuen, DNA lagina emateko. Nire ahizpak eman zuen eta horri esker identifikatu dute aitona.

Derrigorrezkoa da, egungo egoeran, galdetzea nola bizitzen ari zareten eskuin muturraren erasoaldia Oroimen Historikoaren Legearen kontra.

1936

Franco eta Espainiako Estatuko hainbat militarrek estatu kolpea eman zuten uztailaren 18an. Gau horretan atxilotu zuten Modesto Manuel Azkona, eta Gasteizko kartzelan sartu zuten.



Irailaren 17an Azkona eta beste preso batzuk Iruñera eramateko agindua sinatu zuen Gobernu Zibilak, baina ez ziren inoiz iritsi. Bayaseko (Miranda de Ebro) errepide batean sei gorpu agertu ziren, eta bertako hilerrian lurperatu zituzten.

elkarrizketa



...de ertzean topatutako sei gorpuak. Horietako bat zen Modesto Manuel Azkonarena. **Aranzadi**



Goian, Modesto Manuel Azkonaren argazkia. Behean, bera eta beste 3 preso Iruñera eramateko agindua. **Cronicas a pie de fosa**

Nik beldur handiz bizi dut. Oso nagusia naiz eta, besteek garrantzirik eman ez arren, nik uste dut eskuin muturra oso arriskutsua dela, izugarri krudelak baitira. Ez dut batera mespretxatzengutxi izatea, gutxi izanda ere, min handia eragiteko gai dira eta. Ez nago oker. Nik ez dakit nola ikusten duen nire alabak, berak azaldu dezan.

Amaia Lerga (Maria Jesusen alaba eta Nafarroako Fusilatuen Elkarteko presidentea): Eskuin muturra proposatzen ari den konkordia legea iraina da oroimen historiko eta demokratikoaren kontra. Beti dago


indar atzerakoien bat erantzuten duena egiten diren urratsen kontra eta gure elkartzasuna adierazi diegu Espainiako Estatuko beste lurraldetan funtzionatzeari utzi dioten Oroimen Historikoko Institutuei.

Denbora igaro da eta belaunaldi oso bati, gerrako umeei, ez zaie helduko aitortza ezta erreparazioa ere. Horregatik, iraingarritzat jotzen dugu. Horrez gain, badago arriskua historia eta Frankismoa manipulatu eta estatu kolpea zein bere errepresio sistematiko eta odoltsua zurrizkeko.

2019



Indusketak egin eta lau gorpu berreskuratu zituzten. Guztiak zuten tiro bat buruan. DNA probak egin ostean, aurten jakin izan dute horietako bat Modesto Manuel Azkona zela.



... de la Prisión Provincial de esta Ciudad



Bi asteburuz izango dute aldarri Aiaraldean **LGTBIQ+ harrotasuna**

2022an antolatu zuten lehenbiziko aldiz Amurrio Harro Eguna. Iaz Audio batu zen ospakizunera, eta aurtén bi herrietako jaiek egingo dute bat, bata bestearen atzetik egingo baitira, bi asteburu jarraitán. Ekintza anitzez osatutako egitarauak prestatu dituzte, baina helburu berarekin denak: herrietan ere LGTBIQ+ harrotasuna dagoela aldarrikatzea.

Ekainaren 8an egun osoko jaia egingo dute Amurrión. Haurtentzako ginkana, eskulanak, tortilla eta pegatina txapelketa, bazkari herri-

koa, bingo travestia, manifestazioa, batukada eta kontzertuak egingo dira, besteak beste, 12:00etatik 5:00ak arte luzatuko den programan.

Laudión, aldiz, bi egunetan banatuko dute ekintza sorta. Ekainaren 14an (ostirala) Ikusgune (LGTBIQ+ fobiaren aurkako behatokia) informazio karpá jarriko du Batzalarriñ kálean.

Iluntzean, aldiz, Albina Stardust & Divina Comediaren emanaldiaz gozatu ahalgo da,

eta Esti Urresolaren 20.000 *especies de abejas* filmaren "saio golfoa" egingo dute gero, Zubiko Malkoian.

Larumbatean toki berean hasiko dute egitaraua, Audio Harro sari banaketaren lehen edizioarekin. Aitorzahari emango diete "LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde borrokatzen dutenei". Kalejira egingo da jarraian, eta DJ Isma eta Andriquina arduratuko dira iluntze girotzeaz, La Furia rap abeslariaren kontzertuari paso eman baino lehen.

MUSIKA

06.07 Ostirala

19:00 OROZKO IKASTURTE AMAIERAKO TRIKITI ETA PANDERO KONTZERTUA
Donibane aretoa

06.07 Ostirala

20:00 AMURRIO ZARZUELA ANTOLOGIA Incantum eta Agate Deuna abesbatzak. Sarrera doan
Amurrio Antzokia

06.07 Ostirala

21:00 LAUDIO ARTEON ABESBATZAREN KONTZERTUA
Kaleko ostiralak programaren barruan
Lamuza plaza

06.09 Igandea

19:00 LAUDIO UDABERRIKO KONTZERTUA
Andere abesbatzaren eskutik
Lamuza elizan

06.17 Astelehena

19:00 AMURRIO HERRI MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA
Sarrera doan
Amurrio Antzokia

06.18 Asteartea

19:00 AMURRIO UDAL MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA
Sarrera doan
Amurrio Antzokia

KIROLA

06.08 Larumbata

10:30 URDUÑA CD ORDUNA EGUNA
Egun osoko egitaraua
Arbieto

06.09 Igandea

9:00-15:00 LAUDIO III. XAKE TOPAKETA
Audio Institutua

06.15 Larumbata

8:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO MATXKORTA MENDI TALDEAREN IRTEERA
PIRINEOTARA Informazio gehiago
Matxkorta menditaldearen Facebookean edo
matxkorta@gmail.com
helbidean

06.18 Asteartea

17:30 LAUDIO "BISITA MUSEOAN"
Laudioko ikasleen antzezlanak.
Sarrera doan
Faktoria

FAMILIA JARDUERAK

06.13 Osteguna

17:30 URDUÑA UR LUDOTEKA
Gurasolagunek antolatuta
Andra Mari plaza

06.16 Igandea

10:00 OKONDO MENDI IRTEERA
Frontoia

06.16 Igandea

17:00 OKONDO APAR FESTA
Futbol zelaia

BESTELAKO JARDUERAK

06.07-06.09

Ostiraletik igandera
19:00 LAUDIO HERRIEN KULTUR JAIALDIA
Herriko plaza

06.08 Larumbata

AMURRIO AMURRIO HARRO
12:00-13:00 // Ginkana haurtentzat
13:00-14:00 // Eskulanak
12:00-14:00 // Tortilla lehiaketa
14:30 // Tortilla eta pegatina sariak
15:00 // Bazkari herrikola
16:30 // Bingo travestia ft. La Punka Paka
19:00-20:00 // Manifestazioa
20:00-21:00 // Poteoa
Batturere batukadarakin
21:00-22:00 // Dragkelarrea
22:15 // Zozketa
23:00-00:30 // Mekanoren omenezko taldea
01:00-05:00 // DJ Julika

06.08 Larumbata

19:00 ARTZINIEGA ALDE ZAHARREKO JAIA
Haurtentzako jolasak,
erromeria eta tortilla zein
txokolate dastatzeak
Alde Zaharrean

Ahuntz Eguna

Baranbion



Ohiko eskema izango du Baranbioko Ahuntz Egunak. Ostiralean (ekainak 7) nekazaritzari buruzko solasaldia eskainiko dute, baina igande auzango da egun nagusia. Goizetik arratsaldera luzatuko da giroa. Garrantzuko basilazaren inguruetan, hainbat jarduerarekin: mendi martxa, ahuntzen lehiaketa eta azoka, emakume harrijasotzaileentxapelketa, herribazkaria edota erromeria.

Hofex4:40, Toc eta Jotake erromeria

Amurrioko Gazte Egunean




Ekainaren 15ean izango da Amurrioko Gazte Eguna. 10:00etan abiatuko dute jaia, txupinazoarekin. 3x3 areto futbol txapelketa egingo dute jarraian, parkean. Eguerdiari pilotari utzi eta aitzorak hartuko dituzte, aitzorak erakusketa mistoa eskaintzeko.

Elexondo pasealekuan, aldiz, gazte sor-tzaileen azoka eta haurrentzako jolasak egingo dira. 13:00etan trikipoteoa abiatuko dute, eta parkera itzuliko dira gero, bazkaltzeko. Albizabal, Txokogorri eta Biderdi

tabernetan eskuratu daitezke otordurako titak. Bingo musikatuarekin luzatuko dute bazkalostea, eta txapela jaurtiketa egingo dute ondoren. 19:00etan Xaukena elektro-txaragak girotuko ditu herriko kaleak eta Juan Urrutia plazan bilduko dira 22:00etan, ekitaldiari eta kontzertuei hasiera emateko. Hiru talde igoko dira oholtza gainera: Hofex4-40, TOC eta Jotake erromeria. Gaua luzatzea, aldiz, DJ Latxirongaken esku egongo da.


Kartelera



LEZEAGA ARETOA
Sultanaren ametsa
EKAINAK 10
ASTELEHENA (Doan)
18:00



AMURRIO
ANTZOKIA
Ser o no ser
EKAINAK 8
LARUNBATA (Doan)
19:30



AMURRIO
ANTZOKIA
Ixilik
EKAINAK 13
OSTEGUNA (Doan)
19:30



AMURRIO
ANTZOKIA
En los márgenes
EKAINAK 14
OSTIRALA (Doan)
18:00

06.13 Larumbata
9:00 LAUDIO
TXIRRINDULARITZAKO
ESKOLA PROBA
Latorro

06.15 Larumbata
17:00-19:30 ARTZINIIEGA
LA KARPY BIZIKLETA
KLASIKOENTZAKO
IBILBIDEA
Goiko plaza

06.16 Igandea
9:00-14:00 ARTZINIIEGA
LA KARPY BIZIKLETA
KLASIKOENTZAKO
IBILBIDEA
Herria

TAILERRAK

06.08 Larumbata
12:00 URDUÑA
ZUMBA SAIOA
Erretiratuaren kluba

06.11 Asteartea
17:00 LAUDIO
BIODANTZA TAILERRA
Ate irekien jardunaldia.
Informazioa eta izen
ematea: 94 403 48 40
Lezeaga aretoa

06.12 Asteazkena
12:00 URDUÑA
MEMORIA KOGNITIBO
TAILERRA
Erretiratuaren kluba

06.15 Larumbata
12:00 URDUÑA
ZUMBA SAIOA
Erretiratuaren kluba

IKUSKIZUNAK

06.10 Astelehena
18:00 LAUDIO
BI ANTZEZLAN
Garai haiek eta Zuk zer kolore nahiago duzu?
Obrak taularatuko dituzte, Sorlasean egitasmoaren barruan. Sarrera doan
Kasinoa

06.15 Larumbata
19:00 AMURRIO
UDAL DANTZA ESKOLAREN
IKASTURTE AMAIERAKO
EMANALDIA
Sarrera doan
Amurrio Antzokia

06.08 Larumbata
LAUDIO
ORBEKO ETXEAREN
URTEURRENA
16:30 // Distri topaketa, pintxada, Igor Arzuagaren kontzertua eta pikoteoa
20:00 // Kontzertuak: Sutge, B.O.T.H., Kolu eta Kinki Revenge

06.11 Asteartea
10:00 LAUDIO
LAUDIO BIDELAGUN
Jarduera doakoa da eta ez du aurre-inskripziorik behar
Herriko plaza

06.11 Asteartea
19:00 LAUDIO
NAGUSIENTZAKO
DANTZALDIA
Kasinoa

06.14 Ostirala
17:00 LAUDIO
EKONOMIA SOZIAL
ERALDATZAILA
AIARALDEAN
Doako formazio ziklo irekia
Faktoria

06.14 Ostirala
18:30 URDUÑA
URDUÑAKO HISTORIA BERE
ONDAREAREN BITARTEZ
Daniel Luengasen hitzaldia
Orduña Hiria Museoa

06.14 Ostirala
LAUDIO
AUDIO HARRO
19:00-21:00 // Batzalarriin kalean, Ikusguzeren (LGTBI+ fobiaren aurkako behatokia) informazio karpa
21:00-22:00 // Kaleko ostiralak: Albina Stardust & Divina Comedia
22:00 // Zinema: 20,000 especies de abejas Zubiko Malekoian. Saio golfoa

06.15 Larumbata
LAUDIO
AUDIO HARRO
18:00 // I. Laudio Harro 2024 saria ematea
18:30 // Kalejira
20:30-22:30 // DJ Isma eta Andriquina
23:00 // La Furiaren kontzertua

INFO +
aiaraldea.eus

Eskultura bat baino gehiago

21 urte bete ditu Amurrioko parkearen sarreran kokatutako altzairuzko artelanak. Angel Camino eskultoreak diseinatu zuen 2001 eta 2003 urteen artean, eta herriko ikur nagusietako bat bilakatu da azken bi hamarkadetan.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkiak **Mario Paniego**

Amurrioko Juan Urrutia parkean kokatuta dago Guk eskultura. 2003an inauguratu zuten, eta berehala utzi zion altzairuzko estruktura huts bat izateari, herriko ikur esanguratsuenetako bat izatera pasatzeko.

Angel Caminoren lana

Angel Caminok sortu zuen artelana. 2001an ekin zion pieza diseinatzeari, Udalaren enkarguz.

Hiru hankako estruktura osatzea pentsatu zuen. Lehen hankan zenbait amurriotarren izenak jarri zituen, bigarrenean herriko elkarte ugari zerrendatu zituen eta hirugarrenean hainbat hitz bildu zituen, hainbat

hizkuntzetako olerkietatik maileguan hartutakoak. Diseinua errealitatera eramateko prozesua ere ez zen lan makala izan. Ferrocarriles y Equipos SA enpresan galdatu ziren pieza guztiak, 31 tona altzairu baliatuta.

Modu horretan lortu zuten ia zortzi metroko estruktura muntatu eta Juan Urrutia parkeko sarreran dagoen plazan iltzatzea.

Omenaldia

Hainbat jarduera egin dituzte artelanaren 21. urteurrena ospatu eta Angel Camino omentzeko. Ekitaldia egin zuten iragan larunbatean eskulturaren aurrean. Caminoren senideek jaso zuten aitortza, eskultorea 2022an zendu baitzen. Aurrekoa eskaini zieten, eta Udal Musika Eskolako ikasleek jo

zuten jarraian. Pablo Isasik ere hartu zuen hitza ekitaldian. Alkate ohiak Caminorekin bizitako pasadizoak izan zituen hizpide.

Ekitaldia amaitzean, bisita gidatua egin zuten eskulturaren inguruan atondutako argazki erakusketan barrena. Mario Paniego artista amurriotarrak ateratako irudiekin osatu dute esposi-

zioa. Igandean, aldiz, Caminoren omeneko gala egin zuten Amurrio Antzokian.

Modu horretan eman zieten amaiera urteurreneko jarduerari. Hala ere, parkeko erakusketa ekainaren 16ra arte egongo da ikusgai, eta bisita gidatuak egingo dituzte 8 eta 15ean, 13:00etan.

Erreportaje hau Amurrioko bazkideei esker atera dugu. Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu dio Aiaraldea Komunikabideari.



DATUTAN
2003. urtean
eraiki zen Guk eskultura.

8 metroko
altuera du ia estrukturak.

31 tona
altzairu galdatu zituzten
artelana sortzeko.

Hiru hanka ditu eskulturak. Bakoitzak 50 zentimetroko lodiera dauka eta hitz sorta bat du zerrendatuta. Amurrioren izenak, herriko elkarteak eta hainbat hizkuntzetatik maileguan hartutako hitzak agertzen dira zerrendatuta.

ANGEL CAMINO

1953-2022

Valladoliden jaio zen arren, Amurrioren hazi zen Angel Camino eskultorea. Kimika ikasi zuen, baina artearen munduan sartu zen buru belarri, Jorge Oteiza ezagutu ondoren. 1974an Kataluniara jo zuen, bertako Massana Eskolan ikasteko. Eskulturaren eta grabatuaren espezializatu zen bertan, eta ordutik aurrera ibilbide oparoa garatu zuen bi esparru horietan. Erakusketa asko egin zituen, eta sari zein beka ugari ere jaso zituen bere lanaren aitortza gisa. Gaur egun, munduko hainbat txokotan ikusi daitezke bere artelanak.

“Nire oroitzapenei heldu nien, mendiei, zuhaitzei, berdeari, euriari, lagunei... Ohituretara, hizkuntzara eta pentsamendura ere jo nuen, eta lekuaren izpiritu hori denboran zehar bilduko zuen pieza bat bilatu nuen”



kultura

“Oholtzan asko biluzten naiz, eta obrak asko du emoziotik”



JANIRE ETXABEK (Arrankudiaga-Zollo, 1979)

IRAGAN OSTIRALEAN ESTREINATU ZUEN ATXINE IKUSKIZUNA AMURRIO ANTZOKIAN. BAKARKA ETA OHOLTZAN TAULARATU DUEN LEHEN PIEZA DA.



Testua **Aitor Aspuru Saez** Argazkia **Joane Maiz Martinez**

Eskualdean ezaguna zara dantza bertikala egiteagatik, eta Aiaraldea hautatu duzu zure obra berriaren estreinaldirako. Nola da Atxine?

Maiatzaren 31n, ostiralean, estreinatu genuen Amurrio Antzokian *Atxine* emanaldia. Eusko Jaurlaritzak babestutako proiektua da, eta lehen emanaldia Aiaraldean egin genuen. Oso lan performatiboa da. Ez dauka dantza bertikalik paretarekin, baina dantza esekia du: soka eta arnesarekin aterako naiz, eta lurrrarekin izango dut kontaktua paretarekin beharrean. Amurrioren ez zen egon ikus-entzuzko proiektiorik, baina Itziar Aizpuruk errezitatutako Joxean Artzeren poema bai. Batez ere, emakumearen presentzia... emakumeok karga eta pisu hori bizi izan dugu, eta gaur egun ere. Euskara, euskal kultura eta memoria historikoa da beti nire helburua.

Bestelako elementuak ere baliatu dituzu sormen atmosfera sortzeko.

Proiektu honetan ni bakarrik agertuko naiz oholtzan, eta areto formatuan gainera. Orain arte beti kalean antzestu dugu, Harrobi dantza konpainiarekin. Arte Ederrikasi nituen, eta performancea asko gustuko dut. Horregatik sortu nuen *Atxine*, bai kalerako eta baita aretoetarako ere. Arlo performatiboa landu nahi izan dut horrela.

Zer espero behar du ikus-entzuleak?

Hobe ezer espero gabe joatea [barreak]. Nik uste dut begirada zabaltzea eta batez ere mentalitate irekiarekin joatea dela inportanteena. Performancea da, ez da dantza ikuskizuna: burukoarekin eta objektu batekin ateratzen naiz eszenara. Objektu hori, gainera, kontzeptuz eta esanahiz aldatzen joango da eszenatik eszenara. Dramaturgia bat dago garatuta, eta eszenografiak garrantzi handia du.

Burukoa daramazu oholtza gainean, ikuspegia zabaltzea xede. Buruhauste handia eragin dizu horrek?

Gure emanaldietako jantzigiko tela zatiekin tuneatu dugu burukoa, Inma Gomez donostiarraren Kakun atelierraren eskutik. Oso txukun geratu da: zahar kutsua du, eta arnesaren gainean ez erortzeko dantzatzeko goma jarria du. Goma nola estali buruhaustea izan zen, ez pentsa: horregatik jarri genuen

tela. Burukoak emakumeok gure bizi zikloan bizi dugun karga emozionala irudikatzen du obran.

Burukoa ez da elementu nagusi bakarra, ordea.

Bai, hori da. Objektu handi batekin ateratzen naiz, horrekin jaio eta borrokatuko dut, eta horrekin agortuko dut bizitza. Objektua estalkiarekin ateratzen da, eta horrek ere badu bere funtzioa eszenan. Beti izan dtu gogoia objektuarekin dantzatzeko eta interakzioa izateko. *Atxine*rekin lortu dut hori, baina gogoia geratu zait objektuekin ikertu eta esploratzeko, gauza asko egin daitezkeela ohartu bainaiz.

Estreinaldi aurreko egunak nolakoak izan dira? Nolako eragina du sortzailearengan horrek?

Oso urduri egon naiz, beldur handia izan dut. Harrobi Konpainiarekin nabilenean dantzari guztiak gaude paretan, babestuta sentitzen gara, publikoa urrun dugu.

Publikoaren gertutasunak urduritasuna eta beldurra sorrarazten dizkirate. Eszenan asko biluztuko naiz, eta obrak asko du emoziotik. Amama oso presente dut pieza osoan zehar, eta batzuetan emozio horiek kontrolatu behar izaten ditut negarra ez ateratzeko. Hala ere, beldurrei aurre egin behar zaie.

Gorputza eta aurpegia zuk jarri dizkiozu, baina elkarlanean eginitako obra da. Nolako izan da prozesua?

Bakoitzak bere funtzioa izan du: Paula Olazek sortu du musika, Jose Pablo Arriagak eszenografia, Ikerne Gimenezek jantzigitegia, Inma Gonzalez izan da jostuna... Bestalde, Garazi Etxaburu eta Magali Lanriot izan dira nire kanpo begirada eta mugimendu aholkulariak; eta Carlos Solano argiztapen arduraduna. Mikel F. Krutxagak editatu du soinua... eta nik egin ditut proiektu honetan zuzendaritza lana, dramaturgia eta ekoizpena. Beraz, nahiz eta oholtzan bakarrik atera, bakoitzak bere ardura du proiektu honetan.

Harrobi dantza bertikalaren konpainiarekin bigarrenez izango gara finalistak Max Sarietan. Kale ikuskizun onenen artean kokatu dute *Geurera* emanaldiarekin; eta oso pozik gaude lantalde osoa izendapenarekin. Uztailaren 1ean Tenerifera joango gara, ea oraingoan saria hartzea lortzen dugun, itzela izango litzateke!

Kaletik oholtzara egin duzu jauzi. Nolatan?

Azken finean, *Atxine* lan perfor-

matibo eta oso intimista da, horregatik espazio itxiagoa behar nuen. Egia da emanaldi hau kalean ere egingo dugula, baina beste teknika batekin. Esaterako, Amurrioren ez ditugu proiektzioak erabiliko; baina *Atxine* proiektuan guda garai-ko ikus-entzunezkoak ere badaude... Espazio bakoitzean modu batean aurkeztuko dugu.

Euskaraz sortzeko hautua egin duzu beti.

Euskal sortzaile gisa argi dut euskaraz sortu behar dugula, eta gure lanak gure hizkuntzan aurkeztu. Are gehiago, gure konpainietan (Harrobi eta Dimegaz) gure euskarriak beti dira euskal kultura eta memoria. Nik euskal sortzaileak bide eta dramaturgia berriak uztartzera animatuko nituzke, bakoitzak nahi duen diziplinetan (dantza, eskultura, antzerkia...) gure kultura eta hizkuntzarekin fusionatzera.

Jendea eserlekura eramatea dantza ikustera ez da erraza.

Ez, asko tristetzen nau horrek. Niri asko gustatzen zait dantza ikustera joatea areto eta kaleetara. Ikusle gisa, publikoa askoz gutxiago dela sentitu izan dut askotan. Oso garrantzitsua da dantza programatzea; gehiago programatu beharko litzateke aretoetan. Egin behar den lan publikoa kontzientziaztea eta lanketa egitea da. Publi-

koa oso azkarra da, eta badu bere iruditegi propioa: gorputz adierazpenarekin edozer imajinatu daiteke, ez dugu hitzekin adierazi behar.

Horregatik animatzen dut publikoak dantza ikuskizunetara etortzera, barrenetik zeozer aterako baitzaio emanaldiak ikustean.

Aitzindaria zara Euskal Herrian dantza bertikalean. Horrek zure alde edo aurka jokatzeko du?

Jende gehiago dago. Jendeari dantza bertikala ikustea gustatzen zaio, orain erronka aretoetan dago: ea dantza esekiarekin publikoak gerturatzen zaigun.

Egia da, jendeari geroz eta gehiago gustatzen zaiola diziplina hau, ikastera asko animatzen dira: Gautez-Arteagan, Durangon, Gernikan, Nafarroan... Geroz eta ikasle gehiago apuntatzen zaizkigu, talde nahikotxo ditugu. Jendea ikasteko gogoz dago, bai ikusteko eta baita sortzeko ere.

Zer ikasi behar da horrela aritzeko?

Lisboan, Venezian, Brightonen... ikasi dut nik. Dantza bertikala ez dago arautua, baina helduko da eguna. Dantzertin dantza esekia ere eskaintzen dute. Venezian Vertical Dance Center dago, eta badute irakasteko metodologia, *vertical suspending* deitzen dena. Duela bi urte eta erdi joan nintzen, eta asko-

tan itzultzen naiz. Han atera nuen nik agiria, eta pozik nago egindakoarekin, eta irakasteko erabiltzen dut.

Zergatik edo nolatan hurbildu zinen diziplina honetara?

Eskaladatik. Pertsona batekin joaten nintzen eskalatzera, baina sektore oso zailtan sartzen zenez, askotan egon behar nintzen geldi edo aspertuta. Soka jartzen zidanez, zintzilikatu eta saltoak egiten nituen, baina inolako ezagupenik gabe. Halako batean, bi frantses pasa ziren azpitik, eta dantza bertikala egiten ari nintzen galdetu zidaten, grabatzen zuten bitartean. "Zer da hori?" galdetu nien. Horrela ezagutu nuen dantza bertikala.

Zein da zure helburua, proiektu honekiko?

Bakarka ateratzea oholtza gainean zen nire helburua, bakarka zerbait sortzea eta erakustea era performatibo batean; nire bakarkako lanak horrelakoak direlako. Konpainiarekin gauza oso ezberdinak egiten ditut, publiko guztientzako, *Atxine* obran ez bezala: burua zabal eta espektatiba gabe joan behar zarelako. Helburua beti da berdina: euskara zabaltzea eta memoria historikoaren pasarte bat erakustea emanaldi bidez.

Obra ugari sortu dituzu. Zeinek geratzen zara?

“Euskal sortzaile gisa argi dut euskaraz sortu behar dugula, eta gure lanak gure hizkuntzan aurkeztu”



POLIEDROA
PODCASTA

Janire Etxabek bere azken ikuskizuna aurkeztu digu: *Atxine*



Geurera ikuskizunarekin duda gabe, oso prozesu luze eta potentea izan zelako. Mapinga egitera askotan joan behar izan nintzen mendira kamerarekin. Gidoia egiteak ere denbora asko eskatu zidan.

Gainera, koreografia sortzen lesionatu egin nintzen, eta besoa- ren erreproduktzioa egin behar izan zidaten, ebakuntza barne. Lau hilabeteko etenaldia bederatzi hilabetera luzatu zen, oso erreku- perazio motela eta mingarria izan nuen.

Horregatik, estreinaldian mugimenduak moldatu genituen nik dantzatu ahal izateko; baina niretzat prozesu luzeena, gogorrena eta potenteena izan da.

Publikoaren erantzuna ikustean, nahi genuena lortu dugula sentitu izan dut: mitologia zabaltzea (Anbotoko Mari, lamiak, akelarreak...), eta Euskal Herrian gertatutako sorginen ehiza sartzera. Agerian ditugu Hondarribin, Durangon eta Zugarramurdi erahil zituzten emakumeen izen-abizenak, eta amaieran galdera luzatzen dugu: "nortzuk dira sorginak gaur egun? eta ehiztariak?".

Egoera ez da aldatu: emakumeak erahiltzen jarraitzen dute, eta emakumeon kontrako ehiza badago. Esaterako, Itziar Ituñoren ahotsa erabiltzen dugu emanaldian, eta sorgin ehiza jasan zuen berak ere. Gure babesa emateko modua ere bada.



Dantza bertikalean trebatu da Janire Etxabe, eta hainbat sorkuntza lan egin ditu esparru horretan. **Dimegaz**

kultura

“Jendea konfort gunetik ateratzea gustatzen zaigu”



IRUNE IBARRETXE ETA AINHOA SABIO

LAUDIOARREK *LOS AMANTES RUMIANTES* ANTZEZLANA SORTU BERRI DUTE. MAITASUNARI LOTUTAKO BIZIPENAK TAULARATU DITUZTE, UMORETIK KONTATUTA.



Testua **Txabi Alvarado**
Bañares Argazkia
Naia Vallejo Torres

Antzerki proiektu bat sortu duzue elkarrekin, baina nola ezagutu zenuten elkar?

I.I.: Antzerkiagatik ez, Aretako bizilagun izateagatik ezagutu genuen elkar, eta hortik sortu zen gure harremana, naturalki. Antzerkiarekiko lotura beti izan dut nik, nire familia zinema eta musikagintzari lotua dago, baina ikus-entzule gisa nengibilen orain arte. Beti gustatu izan zait idaztea (kazetaria naiz), eta arte eszenikoetan murgiltzea erabaki nuen, oso dibertigarria iruditzen zitzaidalako.

A.S.: Nik ez dut antzerkiarekin esperientziarik baina dantzari gisa bai: gimnasia erritmikoan aritutakoa naiz, balletean... Abestearekin, ordea, arantza nuen; eta denborarekin ausartu egin naiz abesbatzan proba egitera, eta hartu egin ninduten. Txikitatik gustatu zait ipuinak interpretatu eta abatea, baina ez naiz sekula aritu orain arte bezala.

Zerk bultzatu zaituzte obra sortzera?

I.I.: Nire kasuan, espresatzeko beharra izan da. *Los amantes rumiantes* izenburua du lanak, eta pertsonen arteko harremanen behaketa ateratako terapia da, umore bidez eszenaratutakoa. Ms. Crowley pertsonaiak kritikari kritika egingo dio obran. Hori da pertsonalki obra idaztera eraman ninduen, gauza berriak probatzeko nahiarekin batera. Ausartu egin nahi nuen.

A.S.: Nik ere aldaketa behar nuen: barre, kantatu, salto eta antzeztu beharra daukat, nire baitan bizi den zati hori ez dut ezkutatuta eduki nahi. Eta hemen nago.

Nolako izan da sorkuntza prozesua?

I.I.: Musika oso ezberdina entzuten okurritu zaizkit istorioak. Horrela sortu nuen, oso azkar, eta behartu gabe. Ainhoari bidali eta gustatu zitzaionez, probatzeari ekin genion. Musikak kontu batez edo besteez hitz egiteko inspiratzen ninduen. Beti izan dut drama pertsonaletatik barre egiteko gogoia, oso terapeutikoa iruditzen baitzait. Kontua ez da inortaz barre egitea, drama komedia bilakatzea baizik.

Amurrion estreinatu zenuten. Nolako izan zen harrera?

A.S.: Askok gustatu zitzairen, ez ziren ehunka pertsona gerturatu, baina oso giro polita sortu zen.

I.I.: Askok esan ziguten beraiei ere pasa zaiela antzekoa, eta oso

laburra egin zitzaizela esan ziguten. Ordukoa hogei minutuko emanaldia zen, eta orain pittin bat luzatu dugu.

A.S.: Gauza eta obra gehiago ditugu buruko tintontzian. Orain, 1960ko hamarkadako *Los Pequeñiques* musikarekin gabiltza, The Beatles taldearen telonero izandakoena. Hau ez dugu estreinatu oraindik, baina espero dugu uda honetan eszenaratzea. Bestalde, mikroantzerki asko ditugu idatzita ere.

Nolakoak aurreikusten dituzue hurrengo hilabeteak, orduan?

A.S.: Nik uste uda honetan emaldi asko aterako zaizkigula. Beste airean dago, baina aurrera egin nahiko genuke, guri asko gustatzen zaigu, ondo pasatzen dugu eta jendeak ere. Maitasunaren irakurketa garrantzitsua dago amaieran, eta oso beharrezkoa iruditzen zaigu egunerokoari eta jendarteari begira. Maitasunarekiko mezu positiboa bidali nahi genuen: zer da maitasuna? Norbere buruarekiko maitasuna baldintza izan behar da, gainontzekoak sanoki maitatu ahal izateko. Beste lanak “arinagoak” dira, beti ere umoretik.

I.I.: *El pequeño meñique* lan martetarragoa da, surrealistagoa. Jendea konfort gunetik ateratzea gustatzen zaigu.

Idaztetik taularatzera, zelakoa izan da jauzia? Nola hartzen zaio neurria horietako bakoitzari?

I.I.: Lantzen eta erakusten. Kantuekin eta gorputzarekin noraino iristen garen ikusi behar dugu, nola gauden eroso... *Los amantes rumiantes* obran ez gara horrenbeste mugitzen, baina beste obra batzuetan dantzatzeak eta kantatzeak aldi berean sekulako erronka suposatzen du.

A.S.: Beti ez da posible aldi berean dantzatu eta abatea. Probatzea, hutsunea identifikatu eta aldatzea... Prozesua horrelakoa da beti.

Nola moldatzen zarete entseatzeko?

A.S.: Astean behin edo birritan elkartzen gara, gure etxeetan. Lokala eskatu diogu Udalari, baina oraindik ez digute eman. Beste batzuetan Arraño mendira ere joan izan gara.

I.I.: Lokala lortzeaz gaude urtebeteren ostean.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen erronkak?

I.I.: Las 23 y 23 elkarteak sortu berri dugu, gauzak serioago edo profesionalago egiteko hemendik aurrera.

A.S.: Ekainaren 16an dugu hurrengo emanaldia, Basauriko Nai Lua teterian.

Espainiako Orkestra Nazionalarekin joko du Antonio Oyarzabalek azaroan



Antonio Oyarzabal pianista audioarra, bere herrian eskainitako emanaldi batean.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Antonio Oyarzabal musikarilaudioarrak nazioarteko ibilbidearekin jarraitzen du eta Madrilgo Auditorio Nacional aretoan joko du pianoa azaroaren 10ean, *Descubre* zikloaren barruan.

Oholtza partekatuko du Espainiako Orkestra Nazionalarekin eta Julia Cruz zuzendariaren aginduetara egongo da. Cruz gaztea da, baina trebakuntza akademiko

handia izan ez ezik, hainbat sari eta beka jaso ditu jadanik. Britten Pears Young Artist garaikurra lortu du aurten eta duela bi urte Taki Alsop beka eman zioten.

Gauzak horrela, Oyarzabalek Londresetik joko du Madrilera Germaine Tailleferresortzailearen *Piano eta orkestrarako balada* pieza eta Serguéi Prokófieven *7. Sinfonia* interpretatzeko.

Oyarzabalek duela hilabete gutxi argitaratu zuen bere lan berria, *La Muse Oubliéren* bigarren atala.

Zabalik dago berriz Kulturlaben espazioa, Nerea Apodakaren erakusketarekin



Espaziorako berariaz prestatutako erakusketa atondu du Apodakak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Zabalik dago berriz Kulturlaben lokala, hainbat lan egin ostean. Obren bigarren fasea egitea ere aurreikusi dute, baina datorren urtearen hasieran. Ordura

arte, bere jarduna berreskuratu du espazioak, tokiko sortzaileen lanen erakusketa gune moduan. Hain zuzen, Nerea Apodakaren erakusketa bat dago ikusgai uneotan lokalean. Espazio horretarako berariaz prestatutako instalazioa atondu du artista audioarrak.

Literatura egonaldia egingo du Mikel Ayllonek Bartzelonan, antzerki obra berria osatzeko



Ipuinak eta eleberririk plazaratu ditu Mikel Ayllon Corralek, baina azken urteetan antzerkigintzan murgildu da batez ere. **M.A.C**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Hiru astez joango da Mikel Ayllon idazle eta sortzaile audioarra Bartzelonara, Vil-la Joana idazketa egoitzan literatura egonaldia egingo du. *Hegan egiteko gogoa* da dramaturgia proiektua landuko du han, Etxepare Euskal Institutuak jakinarazi duenez. 2025ean estreinatuko dute Euskal Herriko bi antzerki konpainia profesionalak antzeztan hori: "Antzeztanaren eta instalazio artistikoaren arteko hibridoa izango da eta Ayllonek lanaren gi-

doia borobilduko du Bartzelonako egonaldian".

Ayllonek Aiaraldea Komunikabideari azaldu dionez, buru osasunaren inguruko obra izango da, "benetan berezia, izan ere, ikusmena ez beste zentzumen guztiekin bizitzeko ikuskizun bat izango da, baina oraindik bide luzea eta babes eta laguntza asko falta dira haraino iristeko".

Bartzelonako Udalaren Vil-la Joana idazleentzako egonaldian munduko beste txoko batzuetatik etorritako beste idazlerekin hurbilduko da aiaraldearra, "hori beti

da aberasgarria, beste idazle batzuekin esperientziak partekatzea".

Etxepare Euskal Institutuaren hitzetan, deialdi bidez aukeratu da idazle egoiliarra; hots, Mikel Ayllonen proiektu berria: "Horrez gain, hainbat ekitaldi antolatuko dizkigute han, bertako herritarrekin gure proiektuezhitzegiteko, eta hor ere beti dago zer ikasia. Azkenik, esan dezagun nire kasu zehatzean, Bartzelonan arte biziarekin loturiko ekimen oso abangoardistak egiten direla eta puntako artista askoren egoitza dela, eta espero dudala giro horrekin kutsatzea nire lana".

33 parte hartzailek jarri diote kolorea Artziniegako Margo Lehiaketari

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sasoian onen dago Artziniegako Margo Lehiaketa. Maiatzean egin zen topaketaren XXXVI. edizioa, eta 33 partaide egon ziren guztira. Artistak herrian barrena barreiatu ziren koadroak margotzeko, eta gero frontoian jarri zituzten ikusgai lan guztiak. Antolatzaileek nabarmendu dute Espainiako Estatuko hainbat probintzietatik bertaratu zirela margolariak. Gainera, are jendetsuagoa izan zen umeen marrazki topaketa. 73 hurrek parte hartu zuten.



Margolariak herrian barreiatu ziren margolanak sortzeko. **Miguel Brizuela**

kirola

Sugarrrak saskibaloia klubak denboraldia itxi zuen larunbatean ekitaldi izugarri jendetsua antolatuta. 1.300 lagun inguru bertaratu ziren Granja Udal Kiroldegira elkartearen egunean parte hartzeko.

Mila lagun baino gehiagok parte hartu dute Sugarrrak Egunean

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Sugarrrak Eguna ospatu zuten larunbatean Granja Udal Kiroldegian goizetik arratsaldera arte eta saskibaloia jai bilakatu zen hitzordua. Torneo antolatu bazuten ere, Sugarrrak Klubeko kideek azpimarratu dute giroa bera izan zela garrantzitsua.

"1.300 edo 1.400 herritar igaro ziren Granjatik, jokariak, senideak eta lagunak batuta. Nork irabazi zuen ez da esanguratsua, baizik eta parte hartzea. Adibidez, urdaiazpikoaren saskian 70 lagunek egin zuten saiakera kantxaren erditik, ea saskiratzea lortzen zuten", azaldu du Julen Vazquez presidentek.

Halaber, egunaren arrakasta

ikusita, hurrengo urterako eredia aldatzea baloratuko dute, jaia herrigunera eramateko eta herri osoak ikus dezan saskibaloiak daukan garrantzia.

SOS: Entrenatzaile gehiago

Parte hartzaile eta boluntario andana izanda ere, Vazquezek laguntza mezua zabaldu nahi izan du: "Goia jotzen ari gara zentzu askotan. Ez daukagu leku gehiago kiroldegian taldeak sortzeko, baina benetan larritzekoa dena da entrenatzaile trebatuak behar ditugula. Kadete, gazte edo senior kategoriako taldeak sortzeko behar ditugu. Ez bada hori gertatzen, uneren batean hasi beharko gara ezezkoak ematen jokolari berriei".

Argazkiak: Oscar Muñoz Garcia, @jokography_



babestutako edukia



Haur/familia,
gazte eta
helduentzat

FAKTORIA

Atelietzen faktoria

2024-2025 ikasturteko ikastaro eskaintza



Haur eta familientzat

Astelehenetan 17:15-18:15

IPUINEN LABORATEGIAIpuinak jolasen bidez lantzeko,
euskara landuz

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- 2016-2022 bitartean jaiotako haurrentzat.

Astearteetan 17:15-18:15

ESKULANEN LABORATEGIA FAMILIAN

Familia harremanak sendotzeko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- 2017-2021 bitartean jaiotako haurrentzat.

Asteazkenetan

NATUR ATELIERRA

Lurra, elikagaiak, sendabelarrak

- 17:00-18:00 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- 18:00-19:00 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 2tik Ekainaren 18ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

Astelehenetan 18:15-19:15

BIDPODCAST ETA IRRATIGINTZA

Euskarazko ahozkoahotsa lantzeko

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 15€/ Ez-bazkideek 20€.
- 2010-2015 bitartean jaiotako haurrentzat.

Astearteetan 18:00-19:00

ANTZERKI SORMEN LABORATEGIA

Antzerkiaren munduan jolasteko

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- 2013-2018 bitartean jaiotako haurrentzat.

Ostegunetan

DANTZA SORTZAILEA

Mugimendua, gorputza, gozamina

- 17:15-18:15 2017-2021 bitartean jaiotakoak.
- 18:15-19:15 2012-2016 bitartean jaiotakoak.
- Urriaren 3tik Ekainaren 19ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.

Gazte eta helduentzat

Astelehenetan 18:30-20:30

MARGO ESKOLASormena indartzeko eta
ahalduntzeko, margoaren bidez

- Irailaren 30etik ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 35€/ Ez-bazkideek 40€.
- Dinamizatzailea: Gurene Grande.

Astearteetan 19:00-21:00

ANTZERKI ESKOLAAntzeztu, esperimentatu,
sortu eta gozatu

- Urriaren 1etik ekainaren 17ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 35€/ Ez-bazkideek 40€.
- Dinamizatzailea: Ainhoa Artetxe.

Asteazkenetan 19:00-21:00

SUKALDARITZA

Garaiko eta tokiko produktuak

- Urriaren 2tik Ekainaren 18ra.
- Bazkideek 35€/hilabetea | Ez-bazkideek 40€/hilabetea.
- Dinamizatzailea: Maitane Cabeza.

Astelehenetan 19:15-20:45

YOGA ESKOLAGorputza eta arima
osagarritzeko eskola euskaraz

- Urriaren 7tik Ekainaren 16ra.
- Prezioa hilabeteko: bazkideek 25€/ Ez-bazkideek 30€.
- Dinamizatzailea: Beatriz Calvo.

EUSKARA ESKOLA ARINAK

Euskara erraz eta arin ikasteko

- Eguna eta ordutegia:
- Interes taldeen arabera adostuko dira.
- Iraupena: astero ordu eta erdi.
- Urriaren 1etik ekainaren 20ra. Doakoa.



Ezinbestekoa izango da alde zurretik izena
ematea faktoria.eus webgunean.

kirola



“Ez nuen espero Zuazoko lehen taldearekin debuta egitea”

UXUE ALONSO LAUDIOARRA BARAKALDORA JOAN ZEN DUELA BOST URTE ZUAZO KLUBAREKIN JOKATZEKO ETA AMAITU BERRI DEN DENBORALDIAN BIGARREN MAILAN DEBUTA EGITEA LORTU ZUEN.



Testua eta argazkiak
Aitor Aspuru Saez

Debuta egin zenuen aurten Zuazo taldearekin eskubaloiko bigarren mailan. Nolako izan zen esperientzia?

Oso ona, ikaragarria. Jendeak oso ondo tratatu ninduen eta oso onak dira. Partida primeran egon zen eta hiru gol sartu nituen. Uste nuen ez nuela jokatu eta azkenean 30 minutuz egin nuen, ia partida erdia. Oso emaitza estuarekin irabazi genuen, eta pozik.

Gero beste partida bat jokatu nuen. Bi gol egin nituen eta pozik ere. Denboraldi osoan lehen taldearekin entrenatu dut behin baino gehiagotan. Hortaz, ondo egon naiz.

Esan duzu zure debutean ez zenuela espero jokatzeari.

Bi aste lehenago egon nintzen lehen taldearekin entrenatzen eta aurreko astean jakinarazi zidaten nire postuko jokalaritza titularra lesionatuta zegoela. Partida baino bi egun lehenago galdetu zidaten ea joango nintzen eta ez nuen espero 30 minutu jokatzeari. Horrela izan zen eta pozik geratu nintzen bizitako esperientziarekin.

Zuazo lehen mailara igo da, baina zu beste leku batera joango zara, ezta?

Bai, aurten erabaki dut Castrora joatea. Oraingo tal-

dea maila bat gorago dago. Hau da, orain Euskal Ligan nago eta hurrengo denboraldian zilarrezko mailan lehiatuko naiz.

Erabaki erraza izan da?

Ez naiz ni bakarrik joango, Zuazoko lau jokalaritza joango gara. Alde horretatik, erraza da, gainerako taldekideak ere ezagutzen ditut eta. Niretzat ona izango da, ikasteko, eta esperientzia zein eskarmentua lortzeko.

Ez zenuen baloratu Zuazon geratzea lehen mailan jokatu ahal izateko?

Oso maila altua da. Espainiako Estatuko talde onenak daude eta nik orain nire burua hobeto ikusten dut zilarrezko mailan. Uste dut egokiagoa dela niretzat.

Agian gero beste talderen batek deituko dit urrezko mailan aritzeko (hau da, bigarren mailan), auskalo. Onera hori litzateke, gero beste maila batera joatea.

Zenbat urtez ibili zara Zuazon?

Bost denboraldi. Audio Eskubaloi Taldetik hara joan nintzen eta, Zuazoko Campusetan parte hartzen nuen, ezagutzen nituen taldekideak eta ondo hartu ninduten.

Euskadiko Selekzioarekin ere jokatu duzu.

Bai, 2022an. Benidormera joan ginen Espainiako Txapelketara eta bigarren izan ginen. Azken deialdietan sartu nintzen eta oso pozik ibili nintzen, jendea oso jatorra baita. Ez nuen asko jokatu, baina egin nuenean, gogotsu egin nuen. Hala ere, esperientzia oso polita izan zen eta nire buruarekin pozik amaitu nuen txapelketa, selekzioak deitu ninduelako beste behin. Gazte kategorian ez ezik, umeen kategorian ere jokatu nuen aurretik.

Aldaketa handia izan zen Laudiotik Zuazora joatea?

Bai, Zuazo talde garrantzitsua da eta entrenatzaile eta bitarteko gehiago dauzkate. Harrobia sortzen dute lehen talderako.

Zer moduz lehenengo taldearekin?

Entrenanendu asko egin ditut eurekin eta oso ona izan da esperientzia. Ezberdintasuna dago Euskal Ligan jokatetik bigarren mailakoekin egitera. Ez da maila bera eta askoz kontzentratuagoa egon naiz. Presio handiagoa jartzen diozu zure buruari.

Kasu batzuetan, oso bistakoa zen eurak zu baino askoz indartsuagoak zirela. Izan ere, zu oraindik hazten ari zara.

Bai, ni zorionekoa naiz, nire postuan ez delako beha-

rrezkoa gorputz handia edo indartsua izatea. Nire postuan azkarra izatea da garrantzitsuagoa eta, txikia naizenez, banaiz azkarra. Edonola ere, alde fisikoa nabaritzen zen. Horregatik saiatzen naiz gimnasia joaten indar eta pisu gehiago izateko. Nutrizionista batekin ere landu nahi dut hori, indarra eta pisua handitzeko.

Laudio Eskubaloi Taldearekin harremana daukazu oraindik?

Jakina! Javi Conejorekin oso harreman ona daukat eta beste kideekin ere. Nire mutilaguna klubeko jokalaria da eta talde osoarekin moldatzen naiz primeran.

Nola definituko zenuke zure burua jokari gisa?

Gogotsu jokatzen dut, kontzentratuta eta nire abilezia guztia jartzen dut dena ondo egiteko. Azkarra naiz eta edozein jokaldi egin baino lehen, ondo pentsatzen dut. Analizatzen dut egoera, ez dut pilota botatzen aurretik hausnartu gabe.

“Nire buruan segurtasun handiagoa eman dit eskubaloiak, eta besteengan konfiantza ere eman dit, talde jokoa baita”

Erreferenterik duzu?

Partida asko ikusten ditut, baina ez dut gogoko erreferenterik izatea. Las Guerreras asko ikusten ditut, eta Carmen Martin gogoko dut, nahiz eta jadanik ez duen jokatzen. Nire postuan aritzen zen, baina gaur egun ez daukat erreferenterik.

Zein da zure helburua epe motzean?

Lehenik eta behin, indar gehiago hartu nahi dut, ares-tian esan bezala. Gero, ondo jokatu nahi dut hurrengo denboraldian. Izan ere, Castroraino joan beharko naiz entrenatzera eta, ahalegin hori eginda, behintzat, nahi dut merezi izatea emaitzen aldetik. Hiru aldiz entrenatuko dut astero. Pozik egon nahi dut nire buruarekin.

Zer eman dizu zuri eskubaloiak?

Garrantzitsuena, lagun asko eta oso onak. Nire buruan segurtasun handiagoa eman dit, eta besteengan konfiantza ere eman dit, talde jokoa baita.



**DOAKO ETXEZ ETXeko ZERBITZUA:
URDUÑA, AIARA, AMURRIO...**

0km produktua · Garaiko frutak eta barazkiak
Egunero liza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · [f](#) [@](#) @frutadenda_selene

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

**Anova makina guztietan
%5eko DESKONTUA**

Motoaitzurak, inausketa tresnak, hidrogarbigailuak, motozerrak, belarra mozteko makinak (robotak barne) eta askoz tresna gehiago!

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · [f](#) [@](#) @enkarki

kirola

PILOTA

Epikaz eta sufrimenduz beteriko txapela lortu du Iker Larrazabalek



Iker Larrazabalek txapela berria eskuratu zuen iragan maiatzaren 25ean. Baiko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iruñeko Labrit frontoira jo zuten pilotazale aiaralदारrek bihotzekoa izatetik oso gertu ibili ziren iragan maiatzaren 25ean. Iker Larrazabalen partidari, baina, zorionez aiararrarentzat, denak ondo amaitu zuen eta Serie B Txapelketako onena izendatu zuten, Asier Agirre garaituta.

Edonola ere, bidea ez zen erraza izan eta finalak gorabehera izugarriak izan zituen. Agirreketxean jokatu zuen eta bere esperientzia eta fisikoa baliatu zituen Larrazabal ataka larrian jartzeko. Horren adibide izan zen partidaren hasiera, zeinean 4-0ko aldearekin jarri zen nafartarra. Dena den, Larrazabalen teknika bikaina ezin da mespretxatu eta horrela lortu zuen Amurrio Pilota Clubetik ateratako gazteak markagailua iraultzea, 4-5 jarrita.

Hala eta guztiz ere, norgehiagokak ez zuen etenik izan eta Agirreberriro aurre hartuz, 10-5 emaitzara joanda. Orduan, Larrazabalek bere kolpe erreperitorioa

atera zuen eta 11-16ra eraman zuen markagailua.

Larrazabalen nagusitasuna ezarriko zela zirudienean, ordea, Agirrek bere onena eman eta berdindu zuen, baita 19-17 jarri ere. Une kritiko horretan, aiararrak bere eskuen balioa mahairatu zuen eta 19-21ra heltzea lortu zuen.

Ematen zuen partida erabakita zegoela, baina Agirre ez zuen atzeratzen eta berdinketa erdietsi zuen. Eta ez hori bakarrik, erasoan hil zen nafarra, baina azken puntuan kale egin eta Iker Larrazabali eman zion garaipena. Irabazteko moduko erremate bururatu zitzaion Agirrerri bere azken jokaldian, baina ez zuen lortu egikaritzea.

Horrela, poztasuna piztu zen Labriten Aiaraldetik joandakoen artean, bai harmailtan zein kantxan (Koldo Iriarte izan zen Larrazabalen botileroa). Hedabide gehienek azpimarratu dute Asier Agirreren partida, bere esku egon baitzen azken kolpea, baina berdintasuna erabatekoa izan zen eta estatistika horren isla da. Esaterako, Agirrek sei sake egin zituen eta Larrazabalek bost.

TXIRRINDULARITZA

Ion Egia garaile Murietan eta bigarren Zumaiian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ion Egia Aiala Txirrindularitza Elkarteko kideak emaitza oparoak eskuratu zituen Gipuzkoan eta Nafarroan maiatzeko azken asteburuan. Larunbatean emaitza oso positiboa lortu zuen Zumaiian, non bigarren zeharkatu zuen helmuga.

Hala ere, emaitza onena igandean heldu zen Murietan. Esprin-

tean irabazi bazuen ere, aiaralदारrek ez zuen lasterketa lasaia izan. Probaren hasieran ihesaldia gertatu zen eta, ezerezean utzi ostean, bigarren ihesaldia antolatu zuten dozena erdi txirrindularik.

Edonola ere, Iguskizako gainean tropela batu zen eta Ion Egia lehena jarri zen, Mendiko Saria irabazteko. Ondoren, bederatzikirolariko tropela osatu zen eta esprintean onena izanda gailendu zen laudioarra.

FUTBOLA

Euskal Ligara igotzea lortu du CD Laudiooko ohorezko gazte taldeak



Zale ugari bertaratu ziren Ellakurira taldeari animoak emateko. Amets Prado Diaz (APDshoots)

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lortu dute: Datorren urtean Euskal Ligan jokatu dute CD Laudiooko ohorezko gazte taldeko kideek. Iragan larunbat arratsaldean lortu zuten igoera Ellakurira jokatu dute partida bikoitzean.

Laudioarrek SD Retuerto Sport

eta Real Union izan zituzten aurrez aurre. Hiru taldeak izan dira bigarrenak euren herrialdeko ligetan, eta horregatik neurtu behar izan dituzte indarrak euren artean, igoerako txartela nork lortuko zuen ebazteko.

Horretarako, 45 minutuko partida motzak jokatu zituzten euren artean. SD Retuerto Sport eta Real

Unionen arteko partida izan zen lehena. Bigarrenak lortu zuen gailentzea, gol bakarra sartuta. Ondoren iritsi zen CD Laudioen txanda. Laudioarrek Retuerto irabazi zuten, markagailua 2-1 utzita. Ondoren, berdinketa erdietsi zuten Real Unionen aurkako norgehiagokan, golik gabeko partidua eginez.

BOLOAK

Luaiondon izango da Euskadiko Bolo Txapelketa ekainaren 15ean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Luaiondok hartuko du Euskadiko Bolo Txapelketa aurten. Ekainaren 15ean izango da zita, 8:00etatik aurrera, herriko bolatokian. Antolatzaileek urtebete daramate zita esanguratsua horretarako prestatzen.

Aurreratu dutenez, bolatoki albo frontoia atonduko dute. Barra jarriko dute bertan, eta baita partidak zuzenean ikusteko pantaila erraldoia ere. Hain zuzen, Aiaraldea Komunikabideak grabatuko du txapelketa osoa, eta Internet bidez jarraitzeko aukera ere egongo da, Aiaraldea.eus atarian eta sare sozialen bidez.



Lluaiondoko bolatokiko kideak, artxibo irudi batean. Aiaraldea.eus

herriko plaza


Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Ekainaren 19an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Maite

Elkarrekin paseoan, iluntzen ari du... musika, isiltasunaren soinua... eta, ia konturatu gabe, zure urtebetetzera iritsi gara. Zorionak!

Miguel Angel



Ibai

Hara hor gure etxeko txikia, kirolari on bat izateko ahaleginetan. Zorionak Ibai, ama, aita, Unax, amatxi eta aititeren partez zeure 10. urtebetetzean!

Etxekoak



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

	1			5	8	4		
8				4		3		
		6	8			5	9	
1					2			4
	3			8		2		
		5					8	6
5	2			3		6	7	8
		1		6			5	
6	7			5			2	

ZAILA

	7				5			3	
					2			6	
5				4					
8		3		6		7		2	4
2				8				6	
9						3		7	
	5								6
6	1	8	5						

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



EHZ Festibalera joateko sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Ekainak 12, 15:00etan.

IRAKURKETA GUNEA

NIRE TUTUA

Idazlea: Zazu Navarro eta Marta Abad Blay
Argitaletxea: Minis

Ipuin hau tamaina txikian argitaratua dago eta laburra da irakurtzeko. Haur bat, mutil bat, eskolara tutuarekin doala kontatzen du historiak. Tutuarekin joateagataik bizitzen dituen egoerak kontatzen dizkigute idazleek.



MUNDUARI BIRA EGIN ZION ONTZIA

Idazlea: Joseba Sarrionandia
Ilustrazioak: Ares **Argitaletxea:** Pamiela

Bizi dugun munduaren eta egoera ezberdinen gogoeta egiten du idazleak, munduari bira aitzakia hartuta. Gazte batek amonari benetako istorio bat kontatzea eskatzen dionean hasten da dena.



BARRASKILOAK



AZALPENA:

Uda dator eta beroarekin batera, hamaika ekintza eta jolas egin ditzakegu:

- *Leku seguru batean sua egin, harriz inguratu eta suaren inguruan dantza egin.
- *Berdegune batean, zuloa egin ura bota eta lokatzarekin gozatu.
- *Zuhaitzekin gozatu, zuhaitzak igo eta jaitsi eta berriro igo.
- *Gauean zoruan etzan eta izarrak begiratu eta batuta formak asmatu.
- *Gorputza eta eskuekin muralak margotu.

*Lagunekin borobilean jarri eta istorioak kontatu.

*Euria egitean, putzuetan salto egin. Edo putsu horietan paperezko itsasontzi bat bota eta ea zenbat nabigatzen duen ikusi.

*Etxolak sortu ohial eta makilekin.

*Soka batekin eta zuhaitz batekin sortu zure zabuak.

*Oinutsik jarri eta sentitu mundua zure azpian: belarra, harriak, enborrak...

Jolas libre askatasuna da, autonomia eskaintzen dio haurri eta bere barruko behar primarioak ase egiten ditu. Haurra jolas librean da askea eta ikasten du.

Ezinbestekoa da hurrek naturarekin harremana berreskuratzea. Animaliak gara eta naturaren parte, murgildu gaitzen naturan. Jolasaren bitartez naturaz zipristinduko gara. Belarretan oinutsik ibiliz, zuhaitzekin jolasten, txorien txioekin abesten... Naturan egiten ditugun ekintzak sinpleak diruditen arren, haurrak bere garapen osoa jartzen du martxan naturarekin harremana duenean.

HAURRAK NATURAZ BLAITU!



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Udan ere euskaraz!

Laster udako solztizioa ospatuko dugu herri guztietan, sua piztuko da ongi etorria emateko lurretik eguzki beroari. Txarrak bota eta onak guretzako gordeko ditugu, uda datorrela iragartzen duen su erraldoian.

Uda dator eta berarekin batera udaleku garaia hasten da. Gaur egun, gustu guztietarako eskaintza zabala egoten da. Zeri begiraten diogu ordea udaleku bat edo bestea aukeratzeko momentuan? Asko dira udaleku bat edo bestea aukeratzeko egon daitezkeen arrazoiak, ordutegia, prezioa, proiektu pedagogikoa, lekua, lagunaren gustuak...

Eta erreparatzen al diogu hizkuntzari? Geroz eta proiektu gehiago ikusten ditut euskarari inolako garrantzirik ematen ez diotenak. Geroz eta proiektu gehiago daude "gu euskararen alde gaude" esaten dutenak baina euskaraz ez direnak.

Udalekua euskaraz izateko bi momentutan arreta handia jarri behar zaio hizkuntzari. Alde batetik, prestaketa momentuak euskaraz izan behar du goitik behera, hasieratik proiektuan parte hartzen duten guztiek euskara modu naturalean erabili behar dute, prestaketa momentuan garatzen dien harreman guztiak euskaraz izan behar dira gero esku hartzea euskaraz dela ziurtatzeko. Bestetik, prestaketa momentuan haurren hizkuntza ohiturak aldatzeko eta aztertzeko dinamika eta esku hartze teknika ezberdinak baloratu eta adostu egin behar dira profesional guztien artean, eta noski balorazio irizpideetan euskarak leku estrategikoa izan behar du.


Azkenik, esku hartze momentua dugu. Noski hezitzaile guztiek uneoro euskaraz egin behar dutela bai beraien artean zein haurrekin. Gurasoekin ere lehenengo hitzak euskaraz izan behar du esku hartzea euskaraz dela ziurtatzeko, eta noski, prestaketa momentuan adostutako euskara sustatzeko teknika eta dinamikak martxan jarri behar dira esku hartzean.

Esku hartze eta prestaketa guztia borobilduko luke bertan dauden profesional guztiek euskararekiko jarrera ona erakustea, ez soilik udalekuan, baizik eta udalekutik kanpo ere. Denek barne bilduta izango balute Euskal Herri euskaldun batean bizi nahi dutela.

Aurretik azaldutako kontzeptu horiek gabe, proiektua nekez izango da euskaraz. Proiektua idazten duen idazleak argi du euskaraz bizi nahi duela eta bere hurrek euskaraz bizitzeko aukera izan behar dutela. Horregatik, udalekua aukeratzean hizkuntzaren lanketa erdigunean ipintzen du eta estrategikotasuna ematen dio aukeraketan.

Udaleku eskaintza zabala da, euskaraz direnak, ordea, gutxi. Behatu, erabaki eta udalekuez gozatu!

SOLUZIOAK





Altxorrak

Baina zer gordetzen ote du Mari Purtzilek giltzapean? Hizki zopa honek esango dizu. Bila ezazu ongi eta bederatzi elementu aurkituko dituzue: hiru jateko dira; bi, apaintzeko; bi, jolasteko; bat, jotzeko; eta beste bat, janzteko.

Dadoa

Zortzi dado hauetatik lau beheko irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Labirintoa

Lagundu ahate arrari ahate emearekin elkartzan, urmalean.



Kontra

Mundutik Aiaraldera

Diego Delso

GALIZIA



Cuca Garcia

JAIOTERRIA
A CORUÑA, GALIZIA (1989)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN XEDEA
BERLINERA JOAN ZEN BIZITZERA ETA GERO BERTATIK
IRITSI ZEN AMURRIORA.



“Kanpoko jendearen harreraz ahaztu egiten zarete kuadrillan zaudetenean”

Galiziatik Aiaraldera egin duzu salto. Nolatan?

A Coruñan jaio eta bizi izan naiz, baina zortzi urtez joan nintzen Berlinera bizitzera. Bertan ezagutu nuen Amurrioko bat, eta lau urte igaro genituen harremana distantzian elikatzen; hona bizitzera etortzea erabaki nuen arte. Urtebete daramat hemen.

Berlinetik gure eskualdera bada aldea. Zein zehazki?

Diferentzia asko daude. Hiri handi batetik herri txikiak jautzia handia da. A Coruña hiri txikia da, baina Santiagon burutu nituen ikasketak. Nolabait esateko, beti bizi izan naiz hirietan. Hona egokitzea asko kostatu zitzaidan, ez bainuen apenas inor ezagutzen.

A Coruñan eta Berlinen oso lagun talde handiak izan nituen, eta hemen bizitzan lehenbizikoz bakarrik sentitu naiz. Oso zaila iruditu zait jendea ezagutzeko.

Mudantza, lan berria... gaizki pasa nuen.

Hirietan integratzea errazagoa da, beraz?

Nik uste Bilbon irekiagoak dira, hiria delako eta ohituta dardelako kanpoko jendearekin harremanetan egotera, jendea etorri eta joatera.

Galizieraz mintzo zara, euskaraz ere bai?

Iritsi bezain pronto Lanbiden eman nuen izena, eta jarraian hasi nintzen lanean. Euskaltegi-irakurketak egin nuen, baina hutsetik hasi nintzen zinez, irailera arte itxaroteko esan zidaten. Bilbon ere galdetu nuen udako ikastaroen aukeretatik, baina lanetatik ezin izan dut orain arte euskara ikasi, hori ere egitea gustatuko litzaidakeen arren.

Nola oroitzen duzu A Coruña-Berlin etapa?

Nire esperientzia politenetako bat izan zen. A Coruñan nire lagun denak ginen zuriak eta antzerakoak. Berlinen ezagutu nuen kultura ezberdinetako jendea. Gogoan dut alemaniarako ikastaroetan Irango, Bangladesheko, Siriako eta beste lurralde askotako jendea ezagutu nuela. Sekula ez nuen pentsatuko hainbeste herrialdetako lagunak izango nituenik. Berlinen kulturarniztasun handiagoa dago Euskal Herrian baino. Alemania herrialde aberatsagoa denez ekonomikoki, jende asko joaten da.

Hemengo kultura eta bizi ohituretatik zer nabarmenduko zenute?

Aldiz, Berlindarrekiko konparatuta hemengoak askoz atseginoak zarete, maitagarriagoak. Berlinen jendea haserretu egiten da bizikletaz beste errail batetik bazoaz, hemen lasaiago bizi zarete.

Eta harremanei dagokienez?

Berlinen ni kanpotarrekin nituen harremanak, gure kuadrilla eta familiak urrun izateagatik oso erraza zitzaigun jendea ezagutzeko, ingurukoak ere gogo berdinekin zeuden, gu bezala “bakarrrik” zeudelako.

Hasieran, Aiaraldera etortzean, nire nahia lagunak izatea zen, nire bikotekideak mutilak diren lagunak bakarrik dituelako eta, euren bikotekide diren neskek, izenetatik harago, iruditzen zait ez dutela elkar ezagutzen.

Berlinen, adibidez, bestelakoa zen, harremanak izateko orduan, ez ziren neskek alde batetik eta mutilak bestetik egoten. A Coruñan baino askoz agerikoagoa da hori hemen.

Lanean eta hemen lagun batzuk egin ditut, eta sozialki horrek bete eta lasaitu egin nau, hein batean; badakidalako laguntasuna ez dela hila bete bakarrean eraikitzen.

DESKRIBAPENA

Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean kokatuta dagoen herrialdea da Galizia. Politikoki, Espainiako Estatuaren parte da, 1981tik autonomia erkidego moduan funtzionatzen duen arren. Hiriguneetan pilatzen dira biztanle gehienak, A Coruña edota Vigo hirietan bereziki.

AZALERA

29.574 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

2,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Galiziera eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA